



Blitz
Eskolako
Liburutegiko
Bilduma
Sorta
horia



Irakurketa plana Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan

LUIS IZA DORRONSORO



**Nafarroako
Gobernua**



 **Blitz** sorta horia

.....

**Irakurketa plana Haur eta Lehen
Hezkuntzako ikastetxeetan**

ARGITARATZAILEA
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

EGILEA
Luis Iza Dorronsoro

BILDUMAREN ZUZENDARITZA
Hezkuntza Berritaritzarako
eta Curriculuma garatzeko Atala

DISEINUA
Asís Bastida

INPRIMAKETA
Idutzluma

L.G. NA - 2.988/2006
ISBN 84 - 235 - 2925 - 8
978 - 84 - 235 - 2925 - 4



.....

**Irakurketa plana Haur eta Lehen
Hezkuntzako ikastetxeetan**

.....

LUIS IZA DORRONSORO

AURKEZPENA

Hezkuntza Departamentuak deb lau egin du apustu ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzearen alde, haien artean irakurriaren ulermena dela, ezinbesteko tresna baita ikasleek egoki ikasi eta garapen pertsonal eta sozial egokia izanen badute. Hartarako, hainbat ekimen hartu izan ditu joan deneko azken urteetan berrikuntzaren, irakasle prestakuntzaren eta ebaluazioaren alorretan eta bai laguntzako materialak argitaratuz ere. Blitz liburutegiko sagua bildumak, Blitz irakurtzearen alde sorta horiaren bidez, eginkizun horren ardura hartu du.

Atlante Proiektuak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek informazioaren eta ezagutzaren gizartean behar dituzten oinarrizko gaitasunak hobetu beharra planteatzen du, gizarte horretan bizitza osoan barnako ikasketak berebiziko garrantzia hartzen baitu. Gaitasun horien artean, hizkuntza gaitasunak daude. Proiektu honen ondoriozko hobekuntza planak irakurmena curriculumaren arlo guztietan sartzen du, helburu lehenetsizat eta eskolako jarduera osoa hezurtzen duen ardatz gisa.

Eskolak behar diren baliabideak ezarri behar ditu ikasleen irakurtze estrategiak behar bezala garatzea segurtatzeko eta irakurzaletasuna bultzatzeko. Lan hori irakasle guztiei dagokie eta familiaren eta beste erakundeen elkarlana behar du. Irakurketa plana tresna dinamikoa da, ikastetxean helburu hori iristeko egiten diren jarduera guztiak barne-hartzen dituena. Bide ematen du irakurketa irakastearen plangintza zorrotza eta sistematikoa egiteko eta aldi berean ikasleen irakurketa ohitura bultzatzeko behar diren kondizioak eta ekintzak hartzen ditu.

Liburu honek informazio zabala ematen du ikastetxeko irakurketa plan batek dituen helburu, ezaugarri eta osagaien gainean. Orientabideak ematen ere ditu irakasleei laguntzeko delako plana itxuratu eta abiarazten.

Esperantza dugu Hezkuntza Departamentuaren argitarapen berri hau lagungarri izanen dela denen artean gure ikasleek irakurle gai izateko behar dituzten trebetasun eta jarrerak gara ditzaten lortzeko.

Luis Campoy Zueco
HEZKUNTZA KONTSEILARIA

AURKIBIDEA

Orrialdea

07	LEHEN ZATIA Irakurketaren marko teorikoa
08	1. AURRETIKO PLANTEAMENDUA
10	2. IRAKURKETAREN KONTZEPTUA
13	3. IRAKURKETAREN DIMENTSIOAK
13	3.1 Testuingurua: irakurketa egoerak
14	3.2 Testua: testu motak eta testu-genero motak
17	3.3 Irakurlea: irakurketa prozesuak
23	4. ZAILTASUN MAILAK




25	BIGARREN ZATIA Irakurketa plana
26	1. HELBURUA
27	2. EZAUGARRIAK
29	3. OSAGAIAK
31	3.1 Irakurmenaren garapen sistematikoa
31	3.1.1 Eskolako hizkuntzak
32	3.1.2 Gainerako arloak
33	3.1.3 Ikasleei laguntza ematea
35	3.2 Irakurtzera animatzea
35	3.2.1 Ikasgelan
36	3.2.2 Ikastetxean
37	3.2.3 Ikastetxetik kanpo
38	3.3 Ikasleen ebaluazioa
39	3.4 Irakaskuntzako metodologia
39	3.4.1 Irakasleen jarduera komunak
40	3.4.2 Irakurketa estrategien irakaskuntza
46	3.5 Baliabideen erabilera
46	3.5.1 Ikasgelako liburutegia
46	3.5.2 Eskolako liburutegia
46	3.5.3 Ikastetxeok ez diren baliabideak
47	3.5.4 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta irakurketa
49	4. IRAKURKETA PLANA PRESTATZEKO ORIENTABIDEAK
49	4.1 Hasierako ebaluazioa
51	4.2 Gidoi orientagarria
54	4.3 Urteko plangintza
55	Taula eta grafikoen aurkibidea
56	Erreferentzia bibliografikoak



IRAKURKETAREN MARKO TEORIKOA





AURRETIKO PLANTEAMENDUA

Kalitatezko hezkuntzak testuinguru jakin batean beharrezkoak diren jakintzak eta estrategiak pertsonen eskura jarri behar ditu. Gaur egun, jakintzaren gizartearen inguruan egoki moldatzeko ezinbesteko eskumenak bermatu behar ditu.

Irakurmena beti izan da berebiziko tresna eskolako ikaskuntzan. Baieztapen hori hainbat arazoik bermatzen dute. Lehenik, arlo eta irakasgaietako jakintzak, funtsean, linguistikoki eta sinbolikoki giltzatzen dira. Bigarrenik, jakintzetako asko testu idatzietatik jasotzen dira. Eta, azkenik, irakurtzeko orduan ikasleen artean dauden aldeak ikasleen etorkizuneko hezkuntza garapenaren iragarle dira, neurri handi batean. Horretaz gainera, hizkuntza idatzia eta curriculumaren arrakasta elkarren mendeak direla baieztatu dezakegu: hizkuntza idatzian maila ona izanez gero, curriculumean arrakasta izanen da eta, aldi berean, oso zaila izanen da irakurmenean maila altua lortzea, ez bada curriculumean egoki aurreratzen.

Ezin da ukatu irakurmena beti izan dela ezinbesteko tresna eskolako ikaskuntzan. Are garrantzitsuagoa gertatzen da gaur egun, informazioaren eta jakintzaren gizarte

honetan. Behin eta berriz esaten zaigu ikus-entzunezkoaren kultura edozerri gailentzen zaiola. Hala ere, jakintzaren gizarteak testu idatziaren rola indartzen du eta irakurmena nahitaezko osagaia da, gizarte alfabetatu honetan barne-hartze edo integrazioarako osagai ordezkazekin eta baliagarria. Nolanahi ere, gizarte alfabetatu honek hiru alderdi ditu, besteak beste: alfabetatzearen kontzeptu berria, jakintza sortzearen garrantzia eta ikusmolde eleaniztuna.

Alfabetatzearen, irakurmenaren eta irakurtzeko azturaren definizioek aurrera egin dute denboran zehar eta gaur egun ere aldatzen ari dira etengabe: eskuragarri dagoen informazioa sekulakoa da, informazio horren euskarriek aldaketa handiak izan dituzte eta etorkizunean ere izanen dituzte. Eta horiekin batera irakurketa moduak, esate baterako: irakurketa hipertestuala testu digitaletan. Agertoki berri honek berarekin dakar zenbait gaitasun garatu beharra, hau da, informazioa bilatzearekin, eta hura ebaluatu, hautatu eta lantzearekin zerikusia dutenak.

Testuinguru berri honetan ezin da etengabeko ikaskuntza alde batera utzi. Horregatik, garrantzi handia du pertsonak bizitzan beren kasa ikasteko ahalmena ematen dieten eskumenak erabiltzeak. Beharrezkoa da, gainera, informazioa jakintza bihurtzeko gaitatea eta, are gehiago oraindik, jakintza hori gainerakoekin partekatzea.

Hirugarrenik, murgilduta gauden testuinguru honetan oso da garrantzitsua eskumen eleaniztun eta kulturantzuna.

Pertsona batek, gizarte-eragile gisa, hainbat hizkuntzaz duen ezagutzatik eta zenbait kulturarekiko duen esperientziatik abiatuta komunikazio linguistikoa bideratzeko eta kulturarteko elkarreaginean parte hartzeko duen gaitasuna adierazten du **gaitasun eleanitz eta kulturantzak**. Ez du esan nahi, beraz, gaitasun desberdinak batzea edo aurrez aurre jartzea; erabiltzaileak erabil dezakeen gaitasun konplexu bat, gaitasun konposatu bat da. (EUROPAR KONTSEILUA 2002: 167)

Hezkuntza sistemek erronka berri hauei erantzun nahi diete eta, haiak lortzeko helburuak zehazteaz gainera, planak ezartzen dituzte. Hezkuntza sistemen asmoetako bat da ikasleek jakintzaren gizartean formazioa hartzeko behar dituzten eskumenak eskuratzea (eta horien artean dago irakurmena). Hori dela-eta, nazioartean, irakurketa lehenetsutako helburua da Lehen Hezkuntzan nola Bigarren Hezkuntzan.

Gure hezkuntza sistema ez dago dinamika horretatik at. Nafarroako Foru Erkidegoari dagokionez, Atlante proiektuak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarriko eskumenak hobetu nahi ditu. Bere baitan hartu ditu berrogeita hamar helburu estrategiko eta horien artean, honako hauek daude: hizkuntza eskumenak lantzeko erabiltzen den denbora handitzea, gaitasun horien irakaskuntza programatzea eta arlo

.....

guztietako irakasleekin adostutako Ikastetxeko Irakurketa Plana prestatzea. 2005-06 eta 2006-07 ikasturteetarako Atlante proiektutik eratorritako Hobekuntza Planak zenbait helburu ditu (eta horien arteko bat da irakurriaren ulermena curriculumeko arlo guztietan hobetzea).

Beste erakunde batzuekin batera bada ere, ikastetxeen arduetako bat ikasleengan irakurmen ona garatzea da. Horretarako beharrezkoa da prozesu bat gauzatzea, nahita egindakoa eta programatutakoa. Prozesu horren oinarria marko teoriko argia eta irakasleek bereganatua da eta bere baitan hartu behar ditu irakaslan aldutzen duten proposamen errealistak, gaur egungo egoeratik abiatu.



IRAKURKETAREN KONTZEPTUA

Irakurmenean (*reading literacy*) askotariko jakintzak eta trebetasunak sartzen dira. Irakurketak prozesu kognitibo eta metakognitibo asko abian jartzen ditu eta prozesu horietan arrazoitzeko gaitasunak, oroitzapenak eta irakurlearen aurretiko jakintzek hartzen dute parte. Kodea azkar samar ikasten bada ere, geroago prozesu asoziatibo motela behar da, irakurketaren praktika intentzionatua eta sistematikoa eskatzen duena.

Irakurtzerakoan, irakurleak eta testuak testuinguru jakin batean elkarri eragiten diote: irakurleek ez dute testu bera modu berean berenganatzen eta denboran zehar testu hori desberdina izan daiteke irakurle berarendako. Gaur egun ezartzen ari diren irakurketako nazioarteko ebaluazioen azpian dago kontzepzio elkarreragile hori eta, ikusmolde horretatik abiatuz, irakurketaren asmoak garrantzi berezia du irakaskuntzan nola irakurmenaren ebaluazioan. PIRLSek (*Progress in International Reading Literacy Study*) edo 9-10 urte bitarteko haurrei aplikaturiko irakurmenaren nazioarteko ebaluazioak halaxe definitzen du irakurmena:

gizarteak eskatutako edota norbanakoak balioetsitako hizkuntza formak ulertzeko eta erabiltzeko abilezia da. Irakurle gazte-gazteak askotariko testuetatik esanahia ateratzeko gai dira. Irakurtzen dute ikasteko, irakurle elkarrekin parte hartzeko eta norberaren gozamenerako. (MULLIS 2006: 5)

Didaktikaren ikusmoldetik, laguntza handikoa da Marian Sainsbury-k planteatutako irakurketa eredua. Marian Ingalaterrako Hezkuntza Ikerketarako Fundazio Nazionalekoa da (*National Foundation for Educational Research*). Eredua hori I. grafikoan irudikatzen da.



I. GRAFIKOA

Marian Sainsbury-k ezarritako irakurketa eredua

Iturria: Sainsbury, M. (2004): «National and International Assessment of Literacy Skills».

A paper presented at the European Summer School. Paris, March 31, 2004.

Lehen mailan, deskodetzea dugu. Horretarako, fonetika jakin behar da, ikusizko memoria behar da eta analogiak erabili behar dira (horrek ez dakar berarekin testuari esanahi bat nahitaez eman behar izatea). Bigarren mailan, ulermena dugu: irakurritakoari esanahia ematen zaio eta deskodetzeari jakintza lexiko eta gramatikala

.....


gehitzen zaizkio. Irakurketaren kontzeptu elkarreragile batetik abiatuz, hirugarren mailan irakurleak erantzun bat eman behar dio eskuratutako informazioari (horretarako nahitaezkoa da testua helburu edo asmo jakin batekin irakurria izatea).

Azken batean, irakurleak eta testuak elkarri eragiten diote, testuaren esanahia eraikitzeko, testutik beretik abiatuz eta testuinguru jakin batean.

Baina irakurmena ez da uniforme, eskumen asimetrikoa baizik: pertsona baten irakurtzeko gaitasuna testu motaren edo testu-euskarriaren edo irakurketa prozesuaren arabera da. Beraz, ikuspuntu didaktiko batetik abiatuz, nahitaezkoa da testu, prozesu eta irakurketa egoera desberdinak maila batean baino gehiagotan lantzea, irakurmen hutsuneei aurrea hartzeko.

Irakurketaren kontzeptu elkarreragile hau ederki adierazita dago André Maurois frantses idazlearen hitz hauetan: «Liburu on bat irakurtzea etengabeko elkarrizketa da eta elkarrizketa horretan liburuak hitz egiten du eta arimak erantzuten dio».





3

IRAKURKETAREN DIMENTSIOAK

Testuinguru jakin batean irakurlearen eta testuaren arteko elkarreaginak agerian jartzen du irakurketaren hiru dimentsio hauen garrantzia: irakurketa zein egoeratan sortu den, egilearen asmoari eta irakurketaren asmoari, testu mota eta testu-genero mota desberdinei, eta irakurritakoari esanahia ematen dioten ulermen prozesuei dagokienez. Horretaz gainera, irakurketari egiten zaion hurbilketan nahitaezkoak dira irakurlearen jarrerak eta irakurketaren azturak.

3.1 Testuingurua: irakurketa egoerak

Irakurketa testuinguru batean baino gehiagotan gertatzen da: egilearen asmoaren arabera aldatzen da, eta irakurlearen interesen, beharren eta asmoen arabera izan daiteke. Europar Kontseiluak hizkuntza erabiltzeko egoerak lau esparrutan sailkatu zituen: publikoa, pertsonala, profesionala eta hezkuntzako.

Hizkuntza jarduerak **arloan** testuinguruan kokatzen dira. Arloak askotarikoak izan daitezke, baina hizkuntzen ikaskuntzari loturiko arazo praktikoak direla eta, lau arlo-mota bereizten dira oro har: *arlo publikoa, arlo pertsonala, hezkuntza-arloa eta lan-arloa.*

Arlo publikoak elkarreragin sozial arruntari dagokion guztia hartzen du bere baitan (enpresa- eta administrazio-entitateak, zerbitzu publikoak, kultur eta aisia-jarduera publikoak, hedabideekiko harremanak, etab.). Horren osagarri da **arlotik pertsonala**, familiarreko harremanak eta gizabanakoaren gizarte-jarduerak biltzen dituena.

Lan-arloak nor bere lanbidearen jardunean egiten dituen ekintzekin eta harremanekin zerikusia duen oro hartzen du. **Hezkuntza-arloak** (izaera oro har instituzionaleko) ikaskuntzarekin edo formazioarekin zerikusia du; testuinguru horretan, ezagutza edo trebetasun espezifikoak lortzea da helburua. (EUOPAR KONTSEILUA 2002: 15)

Aurreko guztia irakurketari aplikaturik, irakurketa lau testuingurutan gertatzen da: besteendako, norberarendako, lanerako eta hezkuntzan erabiltzeko.

PIRLS 9-10 urteko haurrei aplikatzen zaien nazioarteko ebaluazioa da (gure hezkuntza sistematan Lehen Hezkuntzako 4. kurtsoko haurrei aplikatzen zaie). Adin tarte horretarako, ebaluazio horretan bi asmo hauek lehentasuna dute: irakurtzea esperientzia literario modura edo norberaren gozamenetarako, edo irakurtzea informazioa eskuratzeko eta erabiltzeko. Hortaz, Haur eta Lehen Hezkuntzari dagokionez, lehentasuna dute esparru pertsonalak (irakurri plazeragatik) eta hezkuntza esparruak (irakurri ikasteko).

3.2 Testua: testu motak eta testu-genero motak

Testua komunikazio unitatea da.

(...) erabiltzaile edo ikasleek ahoz edo idatziz jasotzen, sortzen edo trukatzeko duten diskurtso-sekuentzia adierazten du "testu" terminoak. Beraz, ezin egon daiteke komunikazio jarduerarik testurik gabe; jarduerak eta prozesuak aztertzeko eta sailkatzeko, oinarri hartzen da beti erabiltzaile edo ikasleak eta edozein solaskideekin duten lotura, testua produktu amaitutzat, tresnatzat, helburutzat nahiz osatzen ari den prozesu baten emaitzatzat harturik. (...) Bidea, helburua eta funtzioa zein den, halakoa izango da, ez soilik mezuaren testuingurua, baizik eta baita haren antolaketa eta aurkezpena ere. makrofuntzioak). (EUOPAR KONTSEILUA 2002: 91)

Haur eta Lehen Hezkuntzan testu motak eta testu-genero motak hurbiletik ikasten dira eta komunikazio egoera hobeki ulertzeko bidea dira.

Testuak ahozkoak zein idatzizkoak izan daitezke. Eredu teorikoak dira, eta hizkuntza eta komunikazio mailako ezaugarri jakinak dituzte (askotariko komunikazio egoeretan aurki daitezke). Testuen artean honako hauek ditugu: narrazio testua, testu deskribatzailea,

azalpen testua, argudiozko testua, jarraibideak emateko testua... Testu-generoak testuek hartzen dituzten formak dira, komunikazio sozialean duten berariazko funtzioari dagokionez. Genero-testuak dira: ipuina, eleberria, gutuna, berria, editoriala, errezeta...

Testu motak eta testu-genero motak ulertzeko irakurketa estrategiak aktibatu behar dira; beraz, plangintza didaktikoak testuekiko elkarreragina bermatu behar du, hori guztia irakurketa estrategien erabilera ziurtatzeko. Horretaz gainera, testu tipologiek errazten dute curriculumaren antolaketa eta programazioa, hizkuntzaren irakaskuntzaren ikusmolde komunikatibo batetik abiatuta. Era berean, hizkuntza arloak integartzeko osagai garrantzitsua izan daitezke tipologia horiek.

Testuak sailkatzeko irizpide bat baino gehiago erabiltzen da: formatuaren arabera, testuak jarraiak eta etendunak izan daitezke; literaturan, komunikabideetan, erakundeekiko harremanetan, pertsonen arteko harremanetan edo hezkuntzan erabiltzen direnaren arabera ere sailka daitezke; errealitatean oinarritutako testuak eta fikziozko testuak. Gaiaren arabera testuak humanistikoak, zientifiko-teknikoak, publizitarioak... izan daitezke; komunikazio helburuari dagokionez, testuek balio dezakete informazioa emateko, aginduak emateko, norbait konbentzitzeko, olerkiak egiteko...; egilearen komunikatzeko asmoari dagokionez, narrazio testuak, testu deskribatzaileak, azalpen testuak, argudiozko testuak eta jarraibideak emateko testuak izan daitezke.

Benetako testu gehienetan zenbait motatako sekuentziak ageri badira ere –gailentzen den testu sekuentziari eta igorlearen komunikazio asmoari erreparaturik–, testu idatzi jarraiak honela sailkatuko ditugu: narrazio testuak, testu deskribatzaileak, azalpen testuak, argudiozko testuak eta jarraibideak emateko testuak. Narrazio testuetan historia edo gertaera bat kontatzen zaigu; testu deskribatzaileetan norbaiten edo zerbaiten propietate eta ezaugarriak xehe-xehe agertzen zaizkigu; azalpen testuetan jakintzak edo ideiak aldatu eta transmititzen dira; argudiozko testuetan aldeko eta kontrako arrazoiak ematen dira, norbait konbentzitzen saiatzen dira edo hartzailearen ideiak aldatzen ahalegintzen dira. Jarraibideak emateko testuetan oharra eta orientabideak ematen dira, helburu bat lortzeko egin beharrekoaren gainekoak.

Ikasleen irakurmenaren garapenak zikloetarako egokiak diren testuak hautatu beharra ekartzen du. Testu horiek irakurketa egoerak aintzat hartzen dituzte, askotariko testu motak eta testu-genero motak izan daitezke eta euren irakurketa jarduerak irakurketa prozesuak aktibatzen dituzte. Ikasleek testuekin duten elkarreraginean lehentasuna du askotariko testuen irizpideak eta, Haur eta Lehen Hezkuntzari dagokionez, irakurketa eta idazketaren garapen orekatuari begira, ahalegindu behar da euren aurrean testu jarraiak eta testu etendunak jartzen (1. taula).



.....

TESTU JARRIAK	● Deskribapena	■ Deskribapen subjektiboa ■ Deskribapen teknikoa
	● Narrazioa	■ Ipuina, alegia, leienda... ■ Biografia eta autobiografia ■ Eleberria; abentura, fantasia, misterio... historiak ■ Komikia ■ Gutuna ■ Asmakizuna ■ Egunkarietako berria
	● Azalpena	■ Definizioa ■ Azalpen testua ■ Artikulua ■ Laburpena
	● Argudioa	■ Iruzkina, iritzi artikulua ■ Irakurleen gutunak edo zuzendariarendako gutunak ■ Editoriala
	● Argibideak	■ Argibideak (errezeta...) ■ Arauak eta erregulazioak
TESTU ETENDUNAK	● Formularioa ● Informazio orria ● Oharrak eta iragarkiak ● Koadroak eta grafikoak ● Diagramak ● Taulak eta matrizeak ● Zerrendak ● Mapak	

I. TAULA


Haur eta Lehen Hezkuntzan garrantzitsuak diren testu motak eta testu-genero motak

Komeni da finkatzea ziklo bakoitzean lehentasunez zer testu mota landuko den. Hala, Haur eta Lehen Hezkuntzan ikasleek ikusiak izanzen dituzte askotariko testu motak eta testu-genero motak.

3.3 Irakurlea: irakurketa prozesuak

Onartu beharrekoa da irakurmena berez dela oso konplexua. Hori hala izanik ere, ikuspuntu didaktikotik begiratuta, behar diren irakurketa prozesuei arreta berezia egin behar zaie irakurriaren ulermena bermatzeko. Badira irakurketan sarturiko prozesuak azaltzen dituzten zenbait eredu teoriko. Kategorizazio hauetan prozesuen mugak oso zehatzak ez badira ere, irakurketaren irakaskuntza planifikatzeko lagungarriak dira. Nazioarteko ebaluazioen planteamenduari eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza hobetzeko planari –Atlante proiektukoari– jarraikiz, irakurmenean sarturiko ulermen alderdiak, honako hauen arabera sailkatuak: testuaren informazioa nagusiki erabiltzea edo ez; testuaren kanpoan zer dagoen jakin behar den edo ez; testuko zati jakin batzuk kontuan hartu behar diren edo ez; testuaren barruko zatien arteko harremanak kontuan hartu behar diren edo ez; testuko edukiari edo egiturari erreparatu behar zaion edo ez.

Ikusmolde horretatik abiatuak, bost irakurketa prozesu planteatu dira (2. grafikoa).



2. GRAFIKOA

Testu bat nola ulertu


Iturria: OECD (2003): *The PISA 2003 Assessment Framework*.

Mathematics, Reading, Science and Problem Solving Knowledge and Skills. Paris, OECD.

Informazioa bilatzeko edo berreskuratzeke, ageriko informazioa testuan berean lokalizatu behar da, hitz berekin edo sinonimoekin. Ulermen globalaren bidez testuan funtsezkoa dena aterako dugu, testua bere osotasunean hartuta. Testua interpretatzeko, ideien arteko erlazioak ezarriko ditugu eta testua modu logikoan ulertuko dugu. Testuaren edukiaren gaineko hausnarketak eta ebaluazioak balioko digu testuko baieztapenak ebaluatzeko eta baieztapen horiek testuaren kanpokoaz dakigunarekin egiaztatuko ditugu, gero. Azkenik, testuaren formaren gainean hausnarketa eta ebaluazioa egitea zera da, testuaren ezaugarri linguistikoak morfosintaxiaren, hiztegiaren eta esanahiaren eta testuaren arloetan ebaluatzea.

Irakurmena eskolan sistematikoki garatzeak berarekin dakar irakurketa prozesuak nahita landu beharra, desoreka garrantzitsurik sortu gabe, hala nola, interpretazioaren gaineko hitzez hitzeko ulermenaren gehiegizko erabilera. Honen ondotik, irakurketa prozesuei legezkiekeen jarduerak ikus daitezke eta jarduera horiek baliagarriak izan daitezke curriculumeko materialetan proposatutako ulermen ariketak gainbegiratu eta osatzeko.

2. TAULA (páginas 18 a 22). **Irakurketa jardueren adibideak**

<p>INFORMAZIOA BERRESKURATZEA</p>	<p>Definizioa</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Testuan berean ageriko informazioa lokalizatzea, hitz berekin edo sinonimoen bidez.
<p></p> <p>Irakurketa jarduerak</p>	<p>Estrategiak</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Informazioa lokalizatzea. ● Informazioa ulertzea. ● Informazio garrantzitsua hautatzea.
<p>Hitzez hitzeko informazioa hautatzeko ariketak:</p> <p>.....</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Kontakizun bateko denbora edo tokia identifikatzea... ● Osagai jakinak lokalizatzea. ● Xehetasunak ezagutzea. ● Bigarren mailako ideiak lokalizatzea. <p>Informazio baliokidea bilatzeko ariketak:</p> <p>.....</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Sinonimoen bidez (eta ez hitz berekin) emandako berariazko informazioa lokalizatzea. 	

TESTUAREN ULERMEN GLOBALA

Definizioa

- Testutik funtsezkoena ateratzea, testua bere osotasunean hartuta.



Irakurketa jarduerak

Estrategiak

- Ideien arteko hierarkia ezartzea.
- Ideiarik orokorrena eta gehien gailentzen den ideia aukeratzea.

Idea nagusia edo gaia zehazteko ariketak:

- Testuaren zentzua hobekien biltzen duen perpausa hautatzea.
- Grafiko edo taula bateko dimentsio nagusiak identifikatzea.
- Izenburua hautatzea edo prestatzea.
- Idea nagusia ondorioztatzea.
- Testuaren laburpena egitea.
- Literatura testu baten gaia edo mezua identifikatzea.
- Jarraibide batzuen hurrenkera irizpidea azaltzea.
- Ideiak testuko paragrafoekin lotzea.
- Idea nagusien eta bigarren mailakoen arteko bereizketa egitea.

Testu baten asmo orokorra identifikatzeko ariketak:

- Testu baten asmo orokorra identifikatzea.
- Mapa edo koadro baten, Interneteko orri nagusi baten... helburua azaltzea.
- Historia baten giro edo tonuaren, eta egilearen asmoaren arteko erlazioa egitea.

Testu baten erabilera orokorra identifikatzeko ariketak:

- Mapa edo koadro baten, Interneteko orri nagusi baten... erabilera zein den azaltzea.
- Mezu baten hartzaileak identifikatzea.
- Emandako testua zein liburu motatatik atera den aurkitzea.

INTERPRETAZIOA GARATZEA



Irakurketa jarduerak

Definizioa

- Testua logikoki ulertzea.

Estrategiak

- Informazioa erkatzea eta egiaztatzea.
- Inferentziak egitea.
- Laguntza probak identifikatzea.

Informazioa erkatu eta egiaztatzeko ariketak:



- Bi pertsonaien arteko erlazioa deskribatzea.
- Pertsonaien, argudioen eta tokien arteko erlazioa azaltzea.
- Erlazio edo kategoría bat ondorioztatzea.
- Testu bateko ilustrazioen eta edukien arteko erlazioak ezartzea.

Ondorioak edo inferentziak:



- Testuko edukiaren gaineko hipotesia planteatzea, izenburutik abiaturik.
- Izenordain baten erreferentzia zehaztea.
- Esamolde anaforiko baten erlazio erreferentziala zehaztea.
- Gertatuko dena igartzea eta igarpenak gainbegiratzea edo baiestea.
- Pertsonaien ekintzen alternatibak kontuan hartzea.
- Pertsonaia jakin baten asmoa zein den ondorioztatzea.
- Esanahia ondorioztatzea testuingurutik abiaturik.
- Sekuentzia jakinbaten azpian dagoen irizpideari antz amatea.
- Testu batean jeneralizazioak identifikatzea.
- Testuaren informazioaren benetako aplikazioa interpretatzea.
- Ikasketa morala ondorioztatzea.
- Pertsonaien tasun psikologikoak inferitzea.
- Pertsonaia baten jokamoldearen ustezko ondorioak inferitzea.
- Pertsonaia baten egoera animikoa inferitzea.
- Ideia implizituak ondorioztatzea.
- Hitz giltzarrietatik abiaturik, informazio garrantzitsuak inferitzea.

Continúa...

...Continuación

Laguntza probak identifikatzeko ariketak:

- Bi gertakariren arteko kausalitate erlazioa identifikatzea.
- Ondorioarekin batera ekarritako proben zerrenda.
- Erabilitako probak identifikatzea, egilearen asmoa zein den suposatu ahal izateko.
- Ondorioak ateratzea.

TESTUAREN
EDUKIAREN GAINEKO
HAUSNARKETA ETA
TESTUAREN
BALIOESPENA

Definizioa

- Testuko baieztapenak ebaluatzea eta testuaz kanpotik dakigunarekin egiaztatzea.

Estrategiak

- Edukia kritikoki hartzea kontuan.
- Aurkeztutako errealitateaz egiten den irudikapenaren aurrean iritzia ematea.

Irakurketa
jarduerak



Egiaztapen jarduerak, munduaren gaineko jakintza berarekin.

Egiaztatze jarduerak, beste iturri batzuetatik ateratako jakintzekin.

Egiaztatze jarduerak, galderan agerian utzitako ideiekin:

- Deskribatutako gertakariak benetan gertatzeko aukera balioestea.
- Benetako gertakarien eta fantasiako gertakarien artean bereizketa egitea.
- Egileak gaiaren gainean duen jarrera balioestea.
- Egilearen iritziaren eta testuan aipatzen diren beste batzuen iritziaren artean bereizketa egitea.
- Testuko informazioa osoa eta argia ote den iritzia ematea.
- Informazio zatien garrantzia ebaluatzea.
- Egileak ekarritako probak balioestea.
- Datu edo proba jakin batzuen garrantzia balioestea.
- Egilearen argudio bat indartzeko datu alternatiboak ekartzea.
- Testuan ez dauden probak edo argudioak ekartzea.
- Edukiaren eta bizikidetzeta, etika, estetika eta abarretarako arauekin erkaketak ezartzea.

TESTUAREN
FORMAREN GAINKO
HAUSNARKETA ETA
TESTUAREN
BALIOESPENA

Definizioa

- Testuaren ezaugarri linguistikoak arlo morfosintaktikoan, lexiko-semanticokoan eta testuzkoan ebaluatzea.


Estrategiak

- Hizkuntza ezaugarri jakin batzuen eragina ebaluatzea.
- Sakoneko tasun batzuk aurkitzea eta ñabar-durak identifikatzea.

**Irakurketa
jarduerak**




Testuaren egiturari buruzko alderdiak:



- Testu baten funtsezko zatiak ezagutzea.
- Testu genero bati hasiera eta bukaera ematen dioten ohiko esaldiak ezagutzea.
- Egileak testua nola egituratzen duen aurkitzea, irakurlea bukaerarako prestatzearren.

Testuaren estiloari eta erregistroari buruzko ariketak:



- Errepikatzen diren hitzen gaineko hausnarketa egitea.
- Zenbait adjektibo ordezkatzeko eta emaitza balioestea.
- Helburu bat lortzeko, testuan tasun jakin batzuk nola erabiltzen diren ebaluatzea.
- Anbiguotasun lexikoak.
- Testuaren edertasuna balioestea.
- Estilo zuzenaren eta zeharkako estiloaren arteko bereizketa.
- Ironia: identifikatzea eta erabilera ulertzea.
- Gizalegezko formak testuan identifikatzea.





4

ZAILTASUN MAILAK


Irakurketaren zailtasuna ez da bat eta bera, testuarekin nola proposatutako ariketekin zerikusia duten askotariko ezaugarrien arabera. Testuari dagokionez, irakurleak zailagoak edo errazagoak aurkituko ditu, honako hauen arabera: testuaren luzera, hurbiltasun kulturala, gaiarekin ohituta egotea edo hartaz interesaturik egotea, edukia-
ren erraztasun edo konplexutasuna, informazioa testuan antolatzea (testuan ezartzen diren erlazioak), informazio inplizitua edo esplizitua eta formatua (laguntza grafikoak edo ikusizkoak...). Proposatutako ariketei dagokienez, zailtasuna honako hauen arabera izan daiteke: eskatutako informazioaren garrantzia, eskatutako ulermen mota eta maila (informazioa lokalizatzea, ideien arteko erlazioa, hipotesia, balioespina...), lokalizatu edo erabili behar diren testu osagaiak, kontuan hartu beharreko irizpide kopurua, eskatzen den informazioarekin tartekatzen den informazioa eta zereginaren esplizitazio maila.

Beraz, aurreko puntuan aurkeztutako irakurketa jardueren adibideak Haur eta Lehen Hezkuntzako zikloetan aplika daitezke, zailtasun mailaren arabera

.....



IRAKURKETA PLANA



HELBURUA

Irakurle trebeak prestatzeko ardura ez dagokio soilik eskolari, hartan ere parte hartzen baitute familiak eta beste erakunde batzuek, hala nola, liburutegiek, gobernu erakundeek eta komunikabideek. Eskolaren inguruan antzemandako arazoetako bat da irakurtzen ikasteko modua sistematizatu gabe egotea oinarritzko irakaskuntzan, irakurtzen eta idazten lehen aldiz irakasten hasi ondoren. Irakurtzen irakasteko plangintza zorrotz eta sistematikoa egin beharra dago, eskola porrotaren eragileetako bat ikasleek irakurtzen dutena ulertzeko duten arazo latza delako.

Irakurketaren nazioarteko ebaluazioen marko teorikoei eta beste herrialde batzuetan hezkuntzan egiten denari erreparatuz gero, ikusiko dugu badirela irakurketaren irakaskuntza ikastetxeetan planifikatzerako orduan kontuan hartu beharreko zenbait alderdi.

Irakurketa plana gauzatu nahi bada, irakurketaren irakaskuntza sistematizatzeko eta koordinatzeko ahalegina egin behar da. Helburua, honako hau: ikasleak irakurle trebeak izatea, hots, zehatz eta azkar irakurtzeko gai izatea; trebe izatea testuak ulertzen, haien gainean hausnartzen eta haiekiko elkarreaginean eta irakurketarekin motibaturik egotea, plazer hutsagatik edo ikaskuntzarako baliabide ordezkazekin modura hartzen dutelako. Hori dela-eta, ikastetxeek erronka garrantzitsuak dituzte ikasleen oinarritzko

irakurketa estrategiak bermatzeko eta irakurketarekiko motibazioa sustatzeko. «Halako edo bestelako irakurle egiten da, ausaz edo norberak hala erabakita, baina baita hezkuntza prozesu luzeen emaitza modura ere». (Mata, 2004: 134)



EZAUGARRIAK

Nazioartean irakurmena lehenetsunezko helburua da, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan. Nazioarteko ebaluazioetan irakurketan errendimendurik handieneko hezkuntza sistemetako batzuk Kanadakoa, Australiakoa, Erresuma Batukoa edo Irlandakoa dira. Horiek oro partekatzen dituzte irakurketaren irakaskuntza planifikatzeko zenbait tasun komun, nahiz eta osagai bereizgarriak izan. Hala, nazio horietan guztietan badira Lehen Hezkuntzan hasi eta Bigarren Hezkuntzaraino hedatzen diren programak. Oro har, programa horietan irakurketa eta idazketa curriculumeko arlo guztietan sartzen dira eta euren marko teorikoek arreta berezia egiten diete irakurketa prozesuei, zenbait euskarritan aurkeztutako askotariko testuei eta irakurketa helburuei.

Hezkuntza eredu hauek programa egituratu eta sistematizatuak aplikatzen dituzte. Curriculumeko helburu zehatzak eta errendimendu adierazleak dituzte eta horien barnean deskribatzen dira zer ikaskuntza espero den jasotzea eta nolakoak izanen diren

.....

ikasleen lanen ereduak, mailaz maila antolatuak. Kanpo ebaluaziotik ateratako datuak erabiltzen dituzte euren eraginkortasuna frogatzeko eta kanpo ebaluazioarekin koherentea den barne ebaluazioa aplikatzen dute. Ikastetxean jarduerak egitea planteatzen dute (hiru ardatz bereiztu eta elkarren artean koordinatuetan): irakurketa eta idazketa, eskolako hizkuntzekin bat egiten duten arloetan; irakurketa eta idazketa, curriculumaren zeharkako gaitasun modura eta berariazko laguntzak, irakurtzeko zailtasunak jasateko arriskua duten ikasleendako. Ikastetxetik kanpoko jarduerari dagokienez, garrantzi berezia ematen diete familian eta komunitatean duen inplikazioari.


Orain arte deskribatutakoa hurrengo taula honetan islatzen da, eskematikoki:

ESPARRUA	<ul style="list-style-type: none"> ● Irakurketa eta idazketa. ● Irakurriaren ulermena curriculumeko arlo guztietan.
MARKOA	<ul style="list-style-type: none"> ● Irakurketa egoerak edo asmoak. ● Testuen aniztasuna. ● Irakurketa prozesuak.
SISTEMATIZAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> ● Curriculumeko helburu zehatzak. ● Adierazleak: jasotzea espero diren ikaskuntzen deskribapena eta ikasleen ekoizpenen ereduak, mailaz maila antolaturik.
DIMENTSIOAK	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikastetxeko datuak: <ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa eta idazketa eskolako hizkuntzetan. - Irakurketa eta idazketa gainerako arloetan. - Zailtasunak dituzten ikasleei laguntza ematea. - Irakurketa bultzatzea. ● Ikastetxean: <ul style="list-style-type: none"> - Familiaren eta erakundeen inplikazioa.
EBALUAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> ● Barne eta kanpo ebaluazioa.

3. TAULA

Irakurketaren irakaskuntzaren tasun komunak

Irakurketa plan hauek praktikan jartzeko, irakasle guztiek konpromisoa hartu behar dute ikasleen irakurmenean eta horrek denen artean plangintza egin beharra eskatzen du.



3

OSAGAIAK

Irakurketa planak formatu bat baino gehiago izan dezake eta egoerei egokitzeko modukoa izan daiteke. Nolabait ere, 4. taulan taulan biltzen diren osagaiak ere bere baitan bildu beharko lituzke, irakurketa estrategien garapen egokia eta irakurketarako motibazioa beharrezkoak direlako irakurmen ona bermatzeko.

Irakurriaren ulermena sistematikoki garatuz, ikasleei beharrezko trebetasunak eman nahi zaizkie, batetik, irakurketa erabiltzeko ikaskuntzara eta jakintzara iristeko lantresna modura eta, bestetik, irakurtzeko aztura bultzatzeak zerikusia duelako gustuz irakurtzearekin, norberak bere burua aberasteko eta atsegina erdiesteko zerbait bezala hartuta irakurketa. Planteamendu bikoitz horrek nahitaez bi irakurketa motaren aurrean jartzen gaitu: nahitaez egin beharreko irakurketa eta borondatez egiten den irakurketa (biak argi eta garbi bereizi beharrekoak). Ikastetxeak ere badu arduraren honetan, ikasleen irakurmen maila bermatu behar baitu eta irakurtzeko aztura lantzeko baldintza egokiak jarri behar baititu ikasleen eskura.



.....

IRAKURMENAREN GARAPEN SISTEMATIKOA	<ul style="list-style-type: none"> ● Eskolako hizkuntzak 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Kontzientzia fonologikotik grafikora igarotzea ■ Hiztegia eta ortografia ■ Perpausak, paragrafoak eta testuak sortzea ■ Zenbait testu ulertzea ■ Literatura testuen irakurketa (haur eta gazte literatura)
	<ul style="list-style-type: none"> ● Gainerako arloak 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Arloaren nahitaezko hiztegia ■ Definizioak eta azalpenak prestatzea ■ Arloko testu motarik esanguratsuenak ■ Baliabideen erabilera: hiztegiak, entziklopediak, liburutegia eta materialak euskarri elektronikoan
	<ul style="list-style-type: none"> ● Errendimendu baxuko ikasleei laguntza ematea 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Irakurtzeko zailtasunak garaiz identifikatzeko prozedura ■ Garaiz esku hartzea: laguntza eta errefortzu sistema
IRAKURTZEKO AZTURA BULTZATZEA	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasgelan 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Irakurketa giroa ■ Ikasgelako liburutegia
	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikastetxean 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Irakurketa giroa ■ Ikastetxeko liburutegia
	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikastetxetik kanpo 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Familien inplikazioa ■ Liburutegi publikoen eta bestelako erakundeen lankidetzak

TABLA 4. Elementos del plan de lectura

3.1 Irakurmenaren garapen sistematikoa

.....

Eskumen honen garapen sistematikoak ikastetxeko irakasle gutzietan eragiten die eta hiru ardatz hauen inguruan egituratzen da: irakurtzen eta idazten irakastea eskolako hizkuntzetan; irakurtzen eta idazten irakastea curriculumeko gainerako arloetan eta irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza ematea.

3.1.1 ■ ESKOLAKO HIZKUNTZAK

Eskolako hizkuntzetan bereziki landuko dira: kode idatzia ikastea; hiztegiaren aberastasuna; perpausak, paragrafoak eta testuak sortzea; eta askotariko testuak ulertzea (horien artean daude haur eta gazte literaturako testuak).

Kode idatzia ikasteari dagokionez, kontuan hartu beharko dira: irakurtzen eta idazten ikasi aurretiko abilezien garapen maila (ikusizko hautemate eta diskriminazioa, entzutezko hautemate eta diskriminazioa, lateralitatea, grafomotritzitatea, denboraren antolaketa, erritmoaren zentzua, memoria eta ahozko hizkuntza), eta irakurtzen eta idazten irakaste metodologia.

Hiztegiari dagokionez, zikloz ziklo jarduerarik egokienak egingen dira, besteak beste: ikasleen lexikoaren aberastasuna handitzekoak eta hiztegia ulertzeko ikasleei askotariko estrategiak irakasteak (testuen irakurketari etengabe aplikatuko zaizkienak). Hala eginez gero, ikasleek barneratu eta autonomoki aplikatuko dituzte. Estrategia horien artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- Nabarmendutako hitzak ikastea.
- Hitz baten esanahia haren testuingurutik ondorioztatzea.
- Erroak, aurrizkiak eta atzizkiak ezagutzea.
- Hitz elkartuak aztertzea.
- Testuan sinonimoak eta antonimoak aurkitzea.
- Familia lexikoak eta eremu semantikoak osatzea.
- Hitz baten etimologiatik abiatuz, hitz horren esanahiari hurbiltzea.
- Analogiak ezartzea:
 - Objektua eta funtzioa.
 - Antzeko ezaugarriak.
 - Hiponimoak eta hiperonimoak.
 - Ohiko egoerak (irakaslea/ikasgela).
 - Ekintza/eragilea edo objektua.
- Termino baten erabilera teknikoaren eta eguneroko erabileraren artean bereizketa egitea.
- Erdarakadak eta neologismoak identifikatzea.
- Hiztegia kontsultatzea.

Perpau, paragrafo eta testuen eraikuntzari dagokionez, kontuan hartu behar da irakurketa eta idazketa erloju baten mekanismoaren engranaje bezalakoak direla:

.....

irakurketak idazketara garamatza eta alderantziz. Askotariko asmoak dituzten testuak prestatu behar dira eta horiei esker ikasleak irakurketaren asmoez jabetuko dira. Era berean, helburu eta hartzaile batekin prestatutako testuak sortzen badira (testualitate irizpideei jarraikiz eta idazketa aldiak errespetaturik), irakurtzen ari diren testuen ezaugarriez hobeki jabetuko dira ikasleak. Horrekin batera, askotariko testuak irakurriz gero, ikasleen idazkiak hobetuko dira.

Azkenik, irakurriaren ulermena garatzeko, ziklo bakoitzari egokitutako testuak hautatu behar dira eta testu horiek zenbait irakurketa egoerari eta zenbait testu mota eta testu-generori buruzkoak izanen dira. Orobat, gorago deskribatutako irakurketa prozesuetara biltzen diren irakurketa jarduerak sartuko dira.

Ikusmolde eleaniztun batetik abiatuz, garrantzitsua da eskolako hizkuntza guztietan irakurri eta idaztea, zailtasun mailak gorabehera; irakurketari aplikaturiko irakurketa estrategia berak hizkuntza guztietan aplikatzea eta; planteamendu honetatik abiatuz, testu motak eta testu-genero motak ezagutu ahal izatea.

(...) **ikuspegi eleanitzak** hau esan nahi du, ordea: gizabanakoak hizkuntza baten kultur ingurunean duen hizkuntz esperientzia zabaldu ahal, hasi familia-hizkuntzatik eta gizarte-hizkuntzaraino, oro har; eta beste herri batzuetako hizkuntzetaraino gero (izan eskolan edo unibertsitatean ikasiak, edo zuzeneko esperientziaren bidez ikasiak), hizkuntza horiek eta kultura horiek ez ditu adimeneko gunere berezietan gordetzen; aldiz, komunikazio-gaitasun bat garatzen du, hizkuntz arloko ezagutza eta esperientzia guztien bidez eta hizkuntzen arteko harremanaren eta elkarreraginaren bidez. (EUROPAR KONTSEILUA, 2002: 4)

3.1.2 ■ GAINERAKO ARLOAK

Curriculumeko gainerako arloek neurri handi batean irakurketaren irakaskuntzan ardura hartu behar dute. Arlo horietan arreta berezia egin behar zaie arloko oinarrizko hiztegiari, definizioak eta azalpenak prestatzeari, arloko testu mota esanguratsuenei eta askotariko baliabideen erabilerarekin ohitzeari, hala nola, hiztegiei, entziklopediei, liburutegiari eta euskarri elektronikoko materialei.

Eskolako hizkuntzen atalean hiztegiaren gainean esandakoak gainerako arloendako ere balio du.

Definizioei dagokienez, Haur eta Lehen Hezkuntzan, garrantzitsua da, lehenik, termino orokorra identifikatzen ahalegintzea eta, bigarrenik, termino horren berriazko zenbait ezaugarri kategorizatzea.

Curriculumeko arlo hauetan azalpen testua oso baliagarria da (testu horretan maiz testu etendunak agertuko zaizkigu, hala nola, grafikoak, taulak, mapak...) . Lehen

Hezkuntzako ikasleek azalpen testuak irakurtzen dituztenean, alderdi hauek azpimarratu beharko lirateke:

- Testuaren helburua edo eginkizuna aurkitzea, irakurketaren egoerari eta egilearen asmoari erreparaturik.
- Testuaren egitura aztertzea:
 - Planteamendua: erreparatu behar zaie gaiaren aurkezpenari eta zein ikuspuntutatik landu nahi den.
 - Garapena: zaila izanagatik ere, oso garrantzitsua da; ideiak testuan lotzeko zer irizpide erabili den jakitea:
 - Enumerazioa: *lehenik, bestalde, horretaz gainera...* moduko testu-lokailuak erabiltzen ditu.
 - Konparazioa: *era berean, berdin, halaxe...* moduko lokailuak eta konparazio egiturak erabiltzen ditu.
 - Zergatia - ondorioa: kausalitatea adierazten duten *beraz, horregatik, hori horrela...* moduko lokailuak eta gramatika egiturak erabiltzen ditu.
 - Ordena kronologikoa: *hasieran, gero, geroago...* moduko lokailuak erabiltzen ditu.
 - Galdera - erantzuna: galdera zuzenak eta zehar-galderak erabiltzen ditu.
 - Bukaera: azalpenaren alderdirik garrantzitsuenak.
- Ezaugarri linguistikoen azterketa mezuaren ulermena errazteko erabiltzea:
 - Egitura inbertsonalak.
 - Teknizismoak: hiztegi espezializatuak.
 - Aditza: indikatiboko orainaldia.
 - Prozedura tipografikoak: numerazioari, tituluei eta azpituluei, azpimarratzeari, letra etzanari... erreparatzea.
 - Testu-lokailu logikoak.

Arlo honi dagokionez, Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza arloa oso garrantzitsua da. Honako arlo hau oso egokia da hiztegia aberasteko, azalpen testua sistematikoki lantzeko, zientzia testuak eta hedapenerako testuak irakurtzeko zaletasuna sustatzeko eta zenbait baliabideren erabilerarekin ohitzen joateko.

3.1.3 ■ IKASLEEI LAGUNTZA EMATEA

Ikasleei bi modutan laguntzen ahal zaie: irakurtzeko zailtasunak aldeztetik identifikatzeko prozedurak eta garaiz esku hartzea (laguntza eta euskarri sistema barne).

Irakurketan ikasleek maizenik dituzten zailtasunek zerikusia dute irakurtzeko abiadurarekin edo zehaztasunarekin, eta irakurritakoa ez ulertzearekin. Irakurtzeko eta idazteko zailtasunak batera gertatzen badira ere, irakurketan ohikoenak diren aldaketei erreparatuko diegu hemen. Irakurtzeko abiadurari edo zehaztasunari dagokionez, honako hauei erreparatu beharko diegu: azkar irakurtzea eta bukaera

.....

ulertezinak esatea; silabakatzea; ukapena; asmatzea edo benetako irakurketa ez egitea; erritmorik gabe irakurtzea, puntuazioari erreparatu gabe edo gehiegizko etenaldiak eginda; silaba edo hitz bat edo gehiago lerroz aldatzea, errepikatzea edo kentzea; letra edo silaba bat gehitzea edo sartzeta, hartarako beharrik gabe; ordezkapena, inbertsioa eta errotazioa. Irakurritakoa ulertzeko arazoei dagokienez, maizenik gertatzen diren zailtasunak honako hauek dira: komunikazio egoerara oker hurbiltzea; informazioa ulertu eta edukitzeko, eta ideia nagusiak bigarren mailakoetatik bereizteko zailtasunak izatea eta iragarpena, esanahiaren errekapitulazioa edo inferentziak egitea moduko estrategiak erabiltzeko trebetasunik eza.

Irakurketa planean sartu behar dira zailtasunak garaiz identifikatzeko prozedura eta horren arduradunak eta zailtasun horien zergatiak. Zailtasun horiek maiz lotuta daude hizkuntza eskumen eskasarekin edo aurretik irakurri eta idazteko abilezien garapen eskasarekin. Irakurketa prozesua zuzen garatzeko nahitaezkoak diren aurreirakurketako abilezia hauek. Horiei dagokienez, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Ikusizko hautemate eta diskriminazioa: formak, tamainak, koloreak ezagutzea.
- Entzutezko hautemate eta diskriminazioa: soinuak bereiztea.
- Lateralitatea: gorputz eskema; ezker-eskuin, gora-behera kontzeptuak; espazio baten barneko direkzionalitatea.
- Grafomotrizitatea: bukletak, festoiak eta irudi geometriko errazak egiteko trebetasuna.
- Denboraren antolaketa: denborazko sekuentziak (lehenago eta geroago).
- Zentzu erritmikoa: sekuentzia erritmiko errazak.
- Oroitzapena: errimak, olerkiak, asmakizunak gogoan hartzea; ikusizko oroitzapena lantzeko ariketak egitea, hitzak ezagutu ahal izateko.
- Ahozko hizkuntza: ikaslearen adin kronologikoari dagokion zuzentasunaz hitz egitea (hiztegia eta aho jariotasuna).

Komenigarria da irakurmenean antzemandako zailtasunei ahalik eta lasterren aurre egiten hastea. Horretarako teknika asko izan arren, haien aplikazioa honako hauen araberakoa izanen da: diagnostikoaren zehaztasuna eta zailtasunaren oinarrian dauden zergatien identifikazioa. Horretaz gainera, zehaztu behar da laguntza edo errefortzu saioak nola antolatu behar diren: zenbatean behin egiten diren, saioen iraupena zein izanen den, arreta banaka edo talde txikietan egiten den, eta laguntza saioen ardura nork hartuko duen.



3.2 Irakurtzera animatzea

.....

Kanpo ebaluazioetan antzematen da ikasleek irakurketan dituzten interesak eta konpromisoak hein handi batean irakurmeneko puntu-kopuruetan izan diren aldaketak azaltzen dituztela. Bestalde, honela definitu dugu irakurle trebea: zehatz eta azkar irakurtzeko gai da; testuak ulertzen, haien gainean hausnartzen eta haiekiko elkarreaginean trebe da eta irakurketarekin motibaturik dago, plazer hutsagatik, dela ikaskuntzarako baliabide ordezkazekin modura hartzeko. Beraz, irakurketarako motibazioa eskolaren ardura soila ez bada ere, ikasgelan eta ikastetxean irakurketarako giroa sortu beharko litzateke, irakurketarekin gozatzeko, eta irakurketa onak eta irakurtzeko aukera onak eskaintzeko. Irakurketaren esperientzia, kirolarena edo musikarena bezala, arau orokorretatik kanpo badago ere, oso garrantzitsua da baldintzarik onenak lortzea ikasle bakoitzak irakurketaren aukerak euren garapen pertsonalerako erabil ditzan. Horretarako, giro bizigarria sortu beharko litzateke.

Horren ondorioz, irakurtzera animatzea ez da unean-unean jarduera deigarriak soilik egitea, eskolaren dinamikan txertatutako ekintzak, aldian-aldian egindakoak egitea baizik. Horretaz gainera, zuzen irakurtzea lortu duen ikasleak irakurketarekin gozatu du, irakurtzeko azturarik ez izateko arrazoietako bat irakurritakoa ulertzeko zailtasunak izatea edo irakurtzen gehiegizko ahalegina egitea baitira. Irakurmenak eta irakurtzeko azturak elkarri eragiten diote.

Eskolan irakurtzera anima daiteke ikasgelan eta ikastetxean, familiaren laguntzaz eta bestelako erakunde batzuen lankidetzaz. Azken finean, kontua da ikasgelan, ikastetxean berean edo ikastetxetik kanpo, ikasleek irakurtzeko aztura bultzatuko duen giroa dagoela sumatzea.

3.2.1 ■ IKASGELAN

Ikasgelan irakurtzeko giroa egon behar du da eta horretarako espazio, denbora eta giro egokiak beharko dira. Ikasleei egunero irakurri behar zaie, irakurketaz hitz egin behar zaie, zer irakurtzen duten galdetu behar zaie, irakurketaren asteko saioa programatu behar da, liburutegira lagundu behar zaie...; horrek guztiak irakurtzeko aztura erraztuko du.

Ikasgelan irakurtzera animatzeko irakurketa plana prestatu behar da, ikasle bakoitzaren irakurmen mailaren eta zaletasunen arabera. Estrategia egokia da ikasleei testu eskaintza egokia ematea, ikasleak liburuak hautatzeko prozesuetan murgiltzearren. Irakurtzeko zaletasuna bultzatu nahi bada, ikasleei banan-banan aholkua eman behar zaie, hau da, nahitaezkoa da ikasle bakoitzarendako irakurketa plan propioa prestatzea.



.....

Jarduera asko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasgeletan egiten dira, ikasleak irakurtzera animatzeko. Gehiegi sakondu gabe, honako hauek aipa daitezke:

- Irakurketa txokoa ikasgelan.
- Egunero berriak, olerkiak... irakurtzea.
- Egunkariak edo aldian aldiko argitalpenak irakurtzea.
- Irakasleak liburuetakoz zati dibertigarri edo bitxiak irakurtzea.
- Ikasleei liburu zerrenda zabala aurkeztea (liburuen gaiak eta zailtasun-mailak askotarikoak izanen dira).
- Ikastetxeko liburutegiak edo liburutegi publikoak maileguan utzitako liburuak aldian-aldian aurkeztea.
- Liburuen (gehien irakurritako liburuen...) gainean prentsan agertutako oharrak komentatzea.
- Ikasleei lanak eta egileak hautatzen uztea.
- Ikasle eta irakasleen irakurgaiak ahoz azaltzea.
- Denen artean liburu bat irakurtzea eta jarduera batekin saioari bukaera ematea: bakoitzak kapitulu bat irakurri eta kontatuko du edo marrazki bat egingen du...
- Urtebetetzea: ikasle bakoitzak olerki edo ipuin bat idatziko du, eta urteak bete dituenari oparituko dio. Hala, olerki edo ipuin guztiekin liburu bidaiari bat egingen du.
- Egindako irakurketen gaineko eztabaida.
- Pertsonaiak eta agertokia marraztea; horma-irudiak eta dramatizazioak egitea.
- Irakurlearen irakurketa-ibilbidea erregistratzea (irakurri dituen liburuez duen iritzia ere bilduko da erregistro horretan).
- Liburu edota egilerik onenak aukeratzeko bozketa egitea.
- Ikasleen idazkiak eta produkzioak ikastetxeko aldizkarian, webean... argitara ematea.
- Liburu bidaiaria, gai jakin baten gainean ikasleen lanak biltzen dituenak.
- Liburuaren gaineko film bat ikustea.

Azkenik, irakasleak irakurketa eguneroko praktika bihurtu behar du eta ikasleekin haren gainean hitz egin.

3.2.2 ■ IKASTETXEAN

Berriro ere, ikastetxean irakurketarako giroa sortzea da garrantzitsuena, eskolako liburutegiaren inguruko getetan irakurketa present dela ohartarazteko. Ikastetxeko giroak horretan lagun dezake: aldizkako argitalpenak edo komikiak dauden txokoak, gaur-gaurko berriak biltzen diren panelak...

Gaur egun, ikastetxeetan irakurketa sustatzeko jarduerak egiten dira. Horietako batzuk honako hauek dira:

- Eskuratutako edo liburutegi publikoak maileguan utzitako berritasunak aurkeztea: berri laburrak...

- Ikasleek ikasturtean zehar irakurri dituzten liburuen artean gustukoena aukeratzea.
- Ipuin-kontalaria.
- Lan bat irakurri ondoren, lan horren egilearekin topaketa egitea.
- Literatura sariketen epaiak.
- Mailegu zerbitzua.
- Haur eta gazte literaturaren gainean gurasoei aldian aldiko orientabideak ematea.
- Liburuen azalpenak gai zehatz baten gainean.
- Beste maila batzuetako haurrei ipuinak edo ekoizpen idatziak irakurri eta kontatzea.
- Literatura efemerideak ospatzea: Liburuaren Mundu Eguna, Olerkiaren Mundu eguna, Haurrendako Liburuaren Nazioarteko Eguna, egileen mendeurrenak...
- Haur eta gazte literaturako liburutetan oinarritutako filmen emanaldia.

Departamentuko *Los fondos de la biblioteca escolar y los planes de lectura del centro* argitalpenak informazio interesgarria ematen du haur eta gazte literaturako bildumen eta informazio liburuen bildumen gainean; informazioa adinen arabera dago sailkatutik.

3.2.3 ■ IKASTETXETIK KANPO

Familiaren inplikazioa, liburutegi publikoaren lankidetzeta eta bestelako erakundeena ikastetxetik kanpo irakurtzera animatzen laguntzen duten hiru ardatz garrantzitsu dira.

Etxean, familian eta ikastetxean irakurtzeko giro egokia bada, haurrak irakurtzen zaletuko dira. Ikastetxean bezala, garrantzitsua da irakurketak guneak eta denbora izatea familian eta hurrek helduak irakurtzen ikustea. Hori beti ez da posible. Hori hala izanik ere, ikastetxeak zenbait ildo iradoki behar dizkiete gurasoei. Honako hauek, adibidez:

- Haurrekin hitz egitea ahozko hizkuntza bultzatzeko.
- Ipuinak haurrei irakurtzea.
- Irakurgaiak partekatzea: irakurgaiak, egunkarietako edo aldian aldiko argitalpenetako berriak komentatzea.
- Liburutegi publikoko bazkideak izan eta hura bisitatzea.
- Liburutegiak bisitatzea.
- Zalantzak argitzea.
- Liburuak oparitzea.

Liburutegi publikoaren bidez ere zenbait jarduera egin daiteke, hala nola: bisita gidatua liburutegira, topaketak egileekin, ipuin-kontalarien saioak, liburu loteak hautatu eta maileguan uztea, berritasun bibliografikoen informazioa...

Beste erakunde batzuek (Hezkuntza Departamentuak, FIRA Iruña-k, Galtzagorri-k, Germán Sánchez Ruipérez fundazioak...) irakurketaren esparruan zenbait ekarpen interesgarri egin dute eta ikastetxeek ezin dituzte albo batera utzi.

.....

3.3 Ikasleen ebaluazioa

Gorago adierazitakoari jarraikiz, irakurketan errendimendu hobeak dituzten hezkuntza sistemek kanpo ebaluaziotik ateratako datuak erabiltzen dituzte eta euren programen eraginkortasuna frogatzeko barne ebaluazioa aplikatzen dute.

Hasierako ebaluazioarekin irakurtzeko zailtasunak antzematen dira eta ahalik eta lasterren berriazko tratamendua abian jartzen da. Hasierako ebaluazio horretaz gainera, garrantzitsua da, etengabeko ebaluazioari dagokionez, ikasle bakoitzaren irakurketa mailaren erregistro orria izatea, behar diren erabakiak hartu ahal izateko. 5. taulan erregistro orri baten erudia jarri da (orri hori koherentea da azaldutako marko teorikoarekin).

		Irakurketa maila			Oharrak
	Ikaslea: Taldea:	Hartu gabea	Hartzen ari dena	Laguntzarekin	
ZEHAZTAPENA	<ul style="list-style-type: none"> • Ongi deskodetzen du 				
ABIADURA	<ul style="list-style-type: none"> • Erritmo onarekin irakurtzen du • Irakurritakoa ongi adierazten du 				
ULERMENA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiztegia ulertzen du • Testu mota bat baino gehiago ulertzen du • Testuan berriazko informazioa lokalizatzen du • Testua bere osotasunean ulertzen du • Testua interpretatzen du eta ideiak elkarren artean lotzen ditu • Testuko baieztapenak testuaz aurretik dakienarekin eta bestelako iturrietako baieztapenekin egiaztatzen ditu • Testuaren ezaugarri linguistikoei erreparatzen die • Irakurketa estrategiak aplikatzen ditu: iragarri, egiaztatu, birkapitulatu, inferentziak egin 				
MOTIBAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Irakurtzeko zaletasuna du • Ikasgelan arretaz irakurtzen du • Proposatutako liburuak edo testuak ikasgelatik kanpora irakurtzen ditu 				

5. TAULA

Ikaslearen irakurketa mailaren erregistro orria

Horretaz gainera, komenigarria da ziklo bakoitzaren bukaeran egiten den ebaluazioak emandako datuak eskura izatea. Ziklo bakoitzaren bukaeran aplikatuko diren probak prestatu ahal izateko, kanpo ebaluazioetako marko teorikoa har daiteke kontuan eta, egokitzat joko balitz, marko hori irakurketaren beste dimentsio batzuekin osatu. Bukaerako ebaluazio horietan zenbait testu mota erabiliko da: norberak irakurtzekoak (gustuz irakurri) eta hezkuntzan erabiltzekoak (ikasteko irakurri). Testu horietan galderak eginen dira eta galdera horiek deskribatutako irakurketa prozesuekin zerikusia izanen dute eta, orobat, irakurketara motibatuzeko galderak eginen dira.

Proba horiek egiteko, erreferente modura honako ariketa hauek erabil daitezke: PIRLS nazioarteko ebaluazioak (Lehen Hezkuntzako 4. kurtsoari aplikatuak) ezagutzera emandako ariketak, Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. kurtsoan aplikatutako kanpo probak, eta Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. kurtsoetarako Gaztelaniaz, Euskaraz eta Ingelesez prestatutako irakurketa proben ereduak.

Ziklo bakoitzaren bukaeran probak sistematikoki aplikatzeak aukera ematen du ikerketa longitudinalak egiteko eta ikastetxearen irakurketa plana hobetzeko erabaki egokiak hartzeko. Era berean, kanpo ebaluazioetan lortutako emaitzak, behar bezala aztertu ondoren, honako arlo honetan ere lagungarriak izan daitezke.

3.4 Irakaskuntzako metodologia

Zikloetako irakurketari dagokionez, garrantzitsua da irakasleek oro har eginen dutena zehaztea, eta irakurketa estrategien irakaskuntzari dagokionez, zer erabaki hartuko duten jakitea.

3.4.1 ■ IRAKASLEEN JARDUERA KOMUNAK

Irakasleei dagokie irakurketaren irakaskuntza planifikatzea, irakurketa estrategien eredia ezartzea eta, irakurketa-esperientzia aberatsak izateko, ikasleek giro egokia izan dezaten ahalegintzea. Horretarako, zuzenean egin beharko dute lan, ikaslea irakurtzeko aske izan dadin. Horrek esan nahi du prozesuan ere hartu beharko dutela parte, emaitzaren zain geratu gabe. Hori hala izanik, esan behar da testu bakoitzaren bukaeran jarri ohi diren galderak ez direla irakurketa estrategiak irakasteko modurik onena.

Zikloetan eginen diren jardueri dagokienez, irakasleak ados jar daitezke jarduera hauetan:

- a. Arlo guztietan irakurri egin behar da, marko teoriko partekatu bat errespetatuz.
- b. Garrantzitsua da aurretik egindako lana (irakurtzeko zailtasunak ez sortzeko balio baitu). Eskolatzearen lehen urteetako jarduerak oso garrantzitsuak dira ikasleen irakurmenaren garapenean: aurreirakurketa eta aurreidazketako jarduerak, eta irakurketa eta idazketa irakasteko metodologia.
- c. Hasieratik, irakurritakoa ulertzeak lehentasuna du abiaduraren edo zehaztasunaren

- aurretik.
- d. Zikloetarako testu egokiak hautatu behar dira eta testu horiek aldez aurretik onartutako zenbait irakurketa egoera, testu mota eta testu-genero motari buruzkoak izanen dira.
 - e. Eskura dauden curriculum materialak gainbegiratzea eta material horietan proposatzen diren irakurketa jarduerak aldatzea edo osatzea, deskribatutako irakurketa prozesu guztiak kontuan hartzearen.
 - f. Ziklo bakoitzerako zehaztutako irakurketa estrategiak sistematikoki praktikan jartzea.
 - g. Hizkuntza arloetan irakurketaren planteamendu integratzailea egitea, hizkuntza transferentzia erraztearen: testu motak eta testu-genero motak aztertzerakoan, testu idatziak prestatzerakoan, irakurketa estrategiak lantzerakoan eta ikasleak ebaluatzerakoan.
 - h. Irakurtzera animatzeko jarduerak egitea, ziklo bakoitzerako programatutakoak.

3.4.2 ■ IRAKURKETA ESTRATEGIEN IRAKASKUNTZA

Irakurle trebe batek erabiltzen dituen estrategiak ikasteko, eskolan planteamendu sistematikoa egin behar da. Irakurritakoa ulertzeko prozesua gauzatzeko, zenbait estrategia edo eragiketa abian jarri behar da. Aldez aurretik landu behar dira zenbait testuingurutan automatizatu eta aplikatu nahi badira.

Gorago aipatutako trebetasunak (aurreirakurketakoak eta aurreidazketakoak) irakatsi baino lehenago, sistematikoki irakatsi behar dira, kanpo ebaluazioetatik ateratako datuen argira, garrantzitsuak gertatzen diren irakurketa estrategiak, batik bat ikasleen zenbait gabezia antzemateko. Hona hemen estrategia horiek lantzeko zenbait ildo.

Irakurketaren helburua onartzea

Irakurle batek testu bat irakurtzerakoan duen helburuak zehazten du hein handi batean testu haren ulermena. Ildo horri jarraikiz, haurrei honelako kontzepzio murriztaileak ez esaten ahaleginduko gara: «ongi irakurtzea akatsik egin gabe irakurtzea da», «ongi irakurtzea ongi ahoskatzea da» edo «ongi irakurtzea irakurritako hitz guztiak ulertzea da»... Hala eginez gero, testua ulertzerakoan okerreko eragina sor dezake. Garrantzitsua da ikasleei zenbait helburutako irakurketa lanak aurkeztea eta zenbait xedetako idazketa lanak planteatzea.

Jarduerak esanahia izateko, oso garrantzitsua da irakurketaren ingurua prestatzea, testu bat irakurri aurretik. Zerbait irakurri edo idatzi behar dela esaten denean, xedea, erabilgarritasuna eta laneko metodoa azaldu behar dira. Komeni da irakurketa lanak benetako testuinguruetan proposatzea (irakurtzeak zentzua izanen du jarduera bat garatzerakoan eta irakurtzea beharrezkoa izanen da testuinguru horietan). Hasieratik, irakurketaren xedeak eta helburuak ulermenera bideratuko dira, ez soilik irakurritakoa deskodetzerara, zuzentzera edo irakurtzeko abiadura lortzera.

Informazio puntual eta berariazkoa bilatzea, testuaren edukia ikuspegi orokorra lortzea edo interesatzen zaizkigun testu zatiak lokalizatzea helburu duten irakurketa lanek balio dute irakurketa azkarra edo *skim*-a egiteko estrategiak garatzeko. Irakurketa pausatu eta xehea egiteko lanek laguntzen dute irakurketa sakoneko (*scan*) estrategiak garatzen. Bi irakurketa mota horiek landu behar dira Haur eta Lehen Hezkuntzan.

Hitzak azkar ezagutzea

Maizenik erabiltzen diren hitz idatziak azkar ezagutzeak (*sight vocabulary*) ulermena asko errazten du. Hitzak ezagutzeko ahalegin handia egin behar bada, irakurleak ulermenerako beharrezkoak diren beste eragiketa batzuk egiteko ez du behar adina arretarik jarriko, esate baterako, inferentziak egiteko. Hitzak grafikoki ezagutzea trebetasuna da eta, beste faktore batzuen artean, termino horiek idatzita zenbat bider ikusi direnarekin du zerikusia. Oso garrantzitsua da lehen mailatan maizenik erabiltzen diren hitzekin lan egitea, betiere hitz horiek ikusi eta azkar ezagutzeko ikusmoldeetik abiatuz.

Estrategia hori garatzen laguntzen duten jarduerak dira, hasiera batean, hitzen tasun zehaztaileak ikastea eta, gero, beste hauek: desordenatutako letrak, letra-zopak, hitz gurutzatuak, hitz kateatuak, hitz eratorriak, hitz elkartuak, testuen berreraikuntza, definizioak hitzekin lotzea, etab.

Ideen arteko hierarkia ezartzea

Idea nagusiak bigarren mailakoetatik bereiztea ez zaie erraza gertatzen zenbait ikasleri. Hori hala izanik, berariazko zenbait estrategia espresuki irakatsi beharra dago.

Testuaren esanahi globala eraikitzeko, badira informazioa errazteko estrategiak edo arauak (Kintsch & Van Dijk 1978):

- Hautatzeak esan nahi du garrantzirik gabekoa bazterrean uztea, hau da, sekuentzia batean proposizio bat ulertzeko beharrezkoak ez diren informazio osagarriak alde batera uztea.
- Zenbait enuntziatu orokortzea edo testuan dagoen beste enuntziatu orokorrago batez ordezkatzea (azken enuntziatu honek denak ordezkatuko ditu).
- Enuntziatu sekuentzia bat eraikitzea edo testuan ez dagoen beste enuntziatu batez ordezkatzea (enuntziatu horrek guztien esanahia laburbilduko du).

Estrategia hauek erabil daitezke laburpenak, eskemak edo kontzeptu-mapak egiteko. Eskemak eta kontzeptu-mapak egiteko, baliabide linguistiko garrantzitsua da nominalizazioa, hots, enuntziatu bat izen bihurtzea.

Laburpenak, eskemak edo kontzeptu-mapak egiteaz gainera, ideia globala lantzeko balio duten bestelako jarduera batzuk egin daitezke, hala nola: ikasleei bi testu desberdin batera eman, bereiz ditzaten edo desordenatuta dagoen testu bat eman, ordena dezaten.

.....

Hipotesiak eta igarpenak egitea

Irakurketaren ikusmolde elkarreagilearen ondorioz, irakurle onaren eta irakurle txarraren arteko bereizketa hau egin daiteke: irakurle ona gai izanen da testuaren edukari aurrea hartzeko, hipotesiak egiteko eta bere igarpenak geroago egiaztatu ahal izateko.

Estrategia hau irakurketa partekatua bitartez gara daiteke. Irakurketa horretan irakasleak eredu ezarriko du, igarpenak egiteko modua zuzenduko du, eta irakurketaren aurretik eta ondotik galderak egingen dizkie ikasleei. Era berean, ikasleek beren buruari galderak eginez ere garatzen da trebetasun hau.

Inferentziak egitea

Inferentzia ulermenerako nahiaezkoa den arrazoibidezko estrategia bat da, testua ez baita beti oso-osorik agerikoa edo unibokoa; irakurleak mezuaren esanahia zein den zehazten baitu igorlearen komunikazio asmoa ezaguturik eta testuingurua nolakoa den ikusirik. Inferentziak egiteko gaitasunik ezak izugarri zailtzen du testuen ulermena, bereziki ageri-agerian ez dagoen informazio kopuru handia duten haiena, ideien artean egin beharreko loturak automatikoki egitea zailagoa gertatzen baita.

Deskodifikazio arazorik ez duten ikasleek testuak ulertzeko zailtasunik gehienak inferentziak egiteko gaitasunik ez izatearen ondorio dira eta, horregatik, oso zail egingen zaie interpretazioak egitea, eta ideiak eta informazioa integratzea. Zailtasun hauek maiz honako bi eremu hauetan agertzen dira:

- Ideia bat eta haren aurrekaria lotzeko arazoak: zenbait hitz-giltzarrik (izenordainak, adjektiboak, izen sinonimoak, esamolde anaforikoak) testuaren aurreko zati baten esanahia berenganatzen dute, eta ideia baten eta haren aurrekariaren arteko lotura nolakoa den ondorioztatzen laguntzen dute.
- Ideien arteko loturak (azalpen testuetan maiz ageri direnak): konparaziozkoak, zergati-ondoriozkoak, galde-erantzunezkoak, antolaketa kronologikozkoak...

Zenbait jardueraren bidez estrategia hau garatzeko aukera dugu. Irakasleak modelo lana egin dezake, irakurtzen ari den bitartean inferentziak ozen eginez; irakaskuntzan ohikoa da praktika hori. Erabilitako beste teknika bat ikasleek testuak manipulatzeko da: testua paragrafo desordenatuta zatitzea, ikasleek berek ordena ditzaten; edo *cloze* prozedura, atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan asko erabiltzen dena. *Cloze* prozedura horretan, komeni da hasieran hitz alternatiboak eskaintzea, gero erakutsiko ez badira ere. Beste teknika bat honako hau da: erreferente egokia bilatu artean argudioak ematea. Horretarako, «autogalderak» egin beharko dira edo aurrekariak hitz-giltzarria ordezkatu beharko du; emaitzaren azterketa logikoa egingen da, gero. Irakurketa estrategia garatzen laguntzen duen beste jarduera bat honako hau da: testuaren irudikapen grafikoa ematea (eskema edo kontzeptu-mapa) eta ikasleei eskatzea, testua irakurri aurretik, euren buruei galderak egitea.

Aurkeztutako errealitatearen irudikapenaren aurrean kritiko agertzea

Aurretiko jakintzak aktibatu ahal izateko, arlo guztietan komenigarria da izenburuak, sarrerak, diagramak, argazkiak honela aztertzea: irakasleak bere burua «modelo» bezala erabiltzea, irakasleak ikasleei galderak egitea edo ikasleei eskatzea ikasleek berek euren ikaskideei galderak egiteko.

Irakurketaren aurreko jarrera aktibo honi laguntzen dioten bestelako ariketen artean ditugu koherentziarik gabeko paragrafoak edo paragrafo kontraesankorrak bilatzea, edo esaldi arrotzak antzematea.

Zenbait ezaugarri linguistikok esanahian duten eragina ebaluatzea

Estrategiak garatu behar dira, zenbait ezaugarri testualetatik (letra motatik, irudietatik, testuaren antolaketatik...) informazioa lortzeko eta irakurtzeak ematen duen plazeraz gozatzeko. Testuaren ezaugarriak zein diren jakinez gero, testua errazago ulertuko da: testuaren asmoa edo eginkizuna, testuaren egitura eta testuaren ezaugarri linguistikoko zein diren ezagutzeak testuaren esanahia eraikitzen laguntzen du.

Estrategia horiek garatu ahal izateko, komenigarria da Haur eta Lehen Hezkuntzan maizenerik erabili ohi diren testu moten ereduak ekarri eta testu horien ezaugarriak aztertzea, eskolako hizkuntzetan planteamendu komun batetik abiatuz. Baita irakasleak testu horien irakaskuntza modelatzea ere (ahots goraz hausnartzea, ikasleei galderak egitea...).

3.1.2. atalean aditzera eman da azalpen testuari dagokiona. Narrazio testuei aplikatuz gero, honako alderdi hauei erreparatu beharko diegu Haur eta Lehen Hezkuntzan:

- Testuaren helburua edo funtzioa aurkitzea, irakurketaren egoerari eta egilearen asmoari erreparaturik.
- Testuaren egitura aztertzea, honako hiru zati hauei erreparaturik:
 - Aurkezpena edo planteamendua: pertsonaien aurkezpena eta egoera gatazkatsuen planteamendua.
 - Garapena: pertsonaien xehetasunak eta gatazkaren bilakaera.
 - Bukaera: gatazka konpontzea.
- Honako ezaugarri linguistikoen azterketa, mezua ulertzen laguntzeko erabiltzea:
 - Deskribapen izaerako sekuentziak eta elkarrizketak daudela ezagutzea.
 - Testua koherentea izaten laguntzen duten narratzailearengan, pertsonaiarengan eta gertakizunen logikan erreparatzea.
 - Testuari kohesioa ematen dioten denborazko lokailuei erreparatzea.
 - Aditzaren erabilera bereganatzea: aditz asko iraganaldi burutuan edo orainaldi historikoan izatea.

.....

Irakurketa prozesuaren autoerregulazioa

Irakurketa prozesuan zailtasunak gertatzen dira, irakurleak arazo horien aurrean hartzen duen jarrera eta haiei ematen dien erantzuna irakurritakoa ulertzeko giltzarria baitira. Testua berriz irakurtzeko, hipotesiak formulatzeko eta gero egiaztatzeko, eta bestelako iturri batzuetara jotzeko estrategiak beharrezkoak dira irakurmenean aurrera egiten ari dela bermatzeko.

Irakaslearen «modelizazioa», irakurketa partekatua eta autoebaluazio gida erabil daitezke ikasleak aipatutako estrategia horiek erabil ditzan.

Jakina; irakurketa estrategia horiek ez dira konpartimentu itxi modura lantzen, eskolako eguneroko zereginean txertatu beharrekoak baitira. Proiektuen metodologiak ikaslearen irakurketa eta idazketa benetako testuinguru batean kokatzen du eta testuinguru horretan ikasleak informazioa bilatzen du, irakurtzen du, informazioa sailkatu eta bereganatzen du, idazten du eta bere ekoizpenak eta aurkikuntzak gainerakoei helarazten dizkie.

Irakasle guztiek irakurketa estrategietan har dezaten parte eta lan hori ikasleekin era koordinatuan egin dezaten, ikastetxe askotan «irakurri aurretik, bitartean eta ondoren» ikusmoldea erabili ohi dute. Planteamendu horretatik abiatu eta Isabel Solé-k eta beste egile batzuek egindako ekarpenak kontuan harturik, gorago deskribatutako estrategiak irakurri aurretik, bitartean eta ondoren landuko lirateke. Halaxe laburtu da ikusmolde hori taula honetan.



IRAKURRI AURRETIK

- Irakurketaren helburua eta funtzionagarritasuna agerian uztea.
- Irakurketaren xede implizituak eta esplizituak ulertzea:
 - Testuingurua: izenburua, euskarria, testu mota, forma (grafikoak...), data, egilea.
 - Testuaren edukiaren eta formaren gaineko igarpenak.
 - Testuaren xedearen gaineko galderak.
- Aurretiko jakintzak aktibatzea:
 - Zer dakigu testuaz? Ba al dugu informazio gehiago?
 - Gaiaren gainean ezagutzen dugun hiztegia.
- Aurretik beharrezkoa den hiztegia irakastea.
- Nola irakurriko den zehaztea: azpimarratuz, atalez atal...

IRAKURRI BITARTEAN

- Askotariko igarpenak prestatu eta probatzea.
- Inferentziak egitea eta ulermen arloko zalantzak konpontzea.
- Edukia aldian-aldian gainbegiratu edo birkapitulatzea.
- Testuaren edukia eta forma ebaluatzea, testuaz dakigunari eta testuaren kanpokoaz dakigunari dagokionez.

IRAKURRI ONDOREN

- Jakintza laburbildu eta sintetizatzea: gai eta ideia nagusiak.
- Irakurketaren inguruko ekintzak: irudikapena, horma-irudia...
- Jakintza orokortzea.
- Testuak planteatutako itzaropenei nola erantzun dien ebaluatzea: gustatu zaidan edo ez, harriturik geratu naizen edo ez, norbaiti (liburua) irakurtzeko gomendioa eginen niokeen edo ez...

6. TAULA

Irakurketa: «Irakurri aurretik, bitartean eta ondoren» metologia

3.5 Baliabideen erabilera

.....

Irakaskuntzako metodologiarekin batera, baliabideen erabilera zuzenak laguntzen du ikasleen irakurmena sistematikoki garatzen eta irakurtzeko aztura sustatzen. Ikasgelako liburutegia, ikastetxeko liburutegia eta kanpoko baliabideak, euskarri elektronikoan daudenez gainera, beharrezko lan-tresnak ditugu gure eguneroko lanean.

3.5.1 ■ IKASGELAKO LIBURUTEGIA

Haur eta Lehen Hezkuntzan, ikasgelako liburutegia baliabide hurbila eta malgua da eta, horretaz gainera, irakurtzera animatzeko oso erabilia. Liburuen eta bestelako irakurgaien eskaintza onak eta ikasleek liburutegiaren jardunean (liburuak ekarriz, liburuak hautatuz, maileguak kontrolatuz...) parte hartzeak laguntzen du ikasleek irakurtzeko aztura hobetzen. Ikasle bakoitzarendako irakurketa plan bat izateko aukera ematen duen baliabidea da.

3.5.2 ■ ESKOLAKO LIBURUTEGIA

Eskolako liburutegia dokumentazio, informazio eta baliabide zentroa da eta hurrengo irakurketa-helburu hauei erantzuten die: informazioa bilatzea, ikastea eta erabiltzea plazer iturri modura. Eskolako liburutegian agiri inprimatuak, ikus-entzunezkoak eta elektronikoak kudeatzen dira.

Eskolako liburutegia eskola dinamikan txertatutako baliabide modura hartu behar da. Garrantzitsua da irakurketa planak bere funtzionamendu arau propioak zehazteari, fondoak euskaratzeari, irekiera orduari, gelan kontsultatu eta irakurtzeko zerbitzuari, ikasleei aholkua emateari, irakaslearekin batera ikastaldeek erabiltzeari eta mailegu zerbitzuari dagokionez. Bestalde, ikasgelako liburutegiak eskolakoarekin lotura izan dezakete.

Eskolako liburutegiak zenbait jarduera bultza ditzake, hala nola, irakurketa agiri edo pasaporteak, berritasunen aurkezpena, gomendatutako liburuak, liburuen gaineko filmak (eztabaida-saioak eginen dira gero), aldi baterako maileguak ikasgelako liburutegiari egitea eta irakurketa dinamizatzeko bestelako jarduerak.

3.5.3 ■ IKASTETXEKOAK EZ DIREN BALIABIDEAK

Gorago esan den bezala, familiak, liburutegi publikoak, liburutegi birtualak eta bestelako erakunde batzuk ikastetxetik kanpora dauden baliabideak dira eta haiek oro lankidetzan aritzen ahal dira ikastetxearekin ikasleen irakurtzeko azturaren bultzatzeko.

3.5.4 ■ INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK ETA IRAKURKETA

.....

Irakurle trebetzat dugu zenbait euskarritan zehaztasunez eta azkar irakurtzeko gai den pertsona, testuak ulertzen, haien gainean hausnartzen eta haiekin elkarreragiteko trebe dena eta irakurketarekiko motibaturik dagoena, dela plazer hutsa lortzeko, dela ikas-kuntzarako baliabide ordezkaezintzat hartzen duelako. Beraz, ikasleek euren trebetasunak garatu beharko dituzte euskarri elektronikoan irakurri ahal izateko eta informazioa bilatzeko, ebaluatzeko eta hautatzeko, eta jakintza bihurtzeko eta jakintza hori gainerako jendearekin partekatzeko.

Testuinguru berri honetan, Internetek eskolari aukera berriak ireki dizkio, besteak beste, informazio kopuru handiak eskuragarri izatea, irakasleen eta ikasleen lanak jendaurrean jartzeko aukera izatea eta urrun dauden pertsonekin harremanetan jarri ahal izatea. Hori hala izanik ere, ikasleek sarean eskuragarri dagoen informazioa bere horretan hartzeko arriskua ere hor dago, informazio hori asimilatu gabe eta jakintza iturri bilakatu gabe. Arrisku horren aurrean, irakasleek ikasleei orientabideak eman behar dizkiete ikasleek teknologia berrien bidez lor dezaketena lantzeko moduz eta jarduerak planteatu behar dituzte (jarduera horietan ikasleei eskatuko zaie eskuragarri dagoen informazio hori landu edo berregitea). Esate baterako: horma-irudi edo Power Point-eko orri baten bidez edo galde-sorta bati erantzunez...

Irakurketarako beharrezkoak diren gaitasunak (euskarri elektronikokoak) garatzeko jarduera asko egin daiteke ikastetxeetan. Besteak beste, honako hauek: irakurriaren ulermena lantzeko ordenagailuko programak erabiltzea, autoerregulazioa, ipuin eta liburu elektronikokoak irakurtzea, *Clic* tresna erabiltzea, eskolako korrespondentzia elektronikoa, informazioa Interneten bilatzea, haur eta gazte literaturaren edo inguruko geografiaren, ohituren edo historiaren gaineko lanak webean paratzea, ikasleak bere bloga zehaztea eta hartan bere lanak argitaratzea, berriak formatu elektronikoan irakurtzea...

Bestalde, irakasleek ere eskuragarri dituzte Interneten irakurketari buruzko makina bat baliabide. Zenbait argitaletxeren web orrialdeez gainera, hona hemen kontsultatzea merezi duten zenbait baliabide.

- *Biblioteca de Literatura Infantil y Juvenil*. Liburutegi birtualada.
<http://cervantesvirtual.com/>
- *Nafarroako Foru Komunitateko Eskola Liburutegiak*. Berriez, informazioaz, prestakuntzaz, bibliografiez eta loturez gainera, aukera ematen du «Blitz, liburutegiko sagua» bilduman sartzeko. Irakurketaren eta idazketaren gaineko bilduma hori interesgarria eta erabilgarriada.
<http://www.pnte.cfnavarra.es/profesorado/recursos/biblioteca/blitz.php>
- *Ciberoteca Escolar*. Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako irakurgaiak eskura daitezke.
<http://www.ciberoteca.com/ESCOLAR/>
- *CLIJ*. Haur eta gazte literaturari buruzko aldizkaria.
<http://www.revistaclij.com>
- *Cuatrogatos*. Haur literaturari buruzko aldizkaria.
<http://cuatrogatos.org/>

.....

- **EIBZ.** Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa.
<http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/liburutegia/irakurgidak.htm>
- **Fundación Germán Sánchez Ruipérez.** Liburuaren eta irakurketaren zerikusia duten lanak egiten ditu.
<http://www.fundacionsr.es/>
- **Galtzagorri Elkarte.** Euskarazko haur eta gazte literatura sustatu eta hedatzen du.
<http://www.galtzagorri.org/>
- **Imaginaria.** Haur eta gazte literaturari buruzko hamabostekaria.
<http://www.imaginaria.com.ar/>
- **Leer y vivir.** Irakurketarekin zerikusia duten liburuak, hautaketa bibliografikoak eta ikasjarduerak eta ikasbaliabideak dituen gun e birtuala.
<http://www.educared.net/aprende/vivircuento/index.htm>
- **Organización española Para el Libro Infantil (OEPLI).** Haurrendako liburuak eta irakurketa sustatzeko jarduerak bultzatzen ditu eta Lazarillo sarirako deia egiten du.
<http://www.oepli.org/>
- **Pequenet.** Olerkiak eta ipuinak (jardueradunak) daude.
<http://www.pequenet.com/cuentos/>
- **Irakurketa bultzatzeko Plana.** Kultura Ministerioak irakurtzeko aztura bultzatzeko prestatu duen ekimena.
<http://www.planlectura.es/index.html>
- **Primeras noticias,** Educared-en. Baditu ikasproposamenak.
<http://www.educared.net/primerasnoticias>
- **Irakurketa Orientaziorako Zerbitzua [Servicio de Orientación Lectora (SOL)].** Espainiako Editore Gremioen Federazioaren ekimena, Germán Sánchez Ruipérez fundazioarekin batera eta Kultura Ministerioko Liburuaren, Artxiboaren eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusiaren lankidetzaz.
<http://www.sol-e.com/>





4

IRAKURKETA PLANA PRESTATZEKO ORIENTABIDEAK

Irakurketa plana epe erdira egindako plangintza da, zikloetarako garrantzitsuak diren jardueren urteko zehaztapena eta jarduera bakoitzerako plangintza. Irakurketa plana prestatu aurretik, komeni da ikastetxean irakurketaren inguruan egiten ari diren jarduerak zehatz-mehatz aztertzea, jarduerak horiek plan horren abiapuntu izanen baitira.

4.1 Hasierako ebaluazioa

Ikastetxeak irakurketaren inguruan egiten dituen jarduerak aztertzeko, zenbait alderdi hartuko dugu kontuan, irakurketa plan sistematiko bat prestatu aurreko edo gaur egungo plana hobetzeko urrats modura.



.....

7. TAULA
Ikastetxeko irakurketa planaren
hasierako ebaluazioa

BAI
.....
EZ
.....
Parte batean

SISTEMATIZAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikastetxean bada ageriko irakurketa plan bat. ● Irakurketa planean bada plangintza bat, epe erdira egitekoa. ● Irakurketa planean bada jardueren urteko plangintza, ziklo guztietarako prestatua. ● Irakurketa planean bada jarduera bakoitzerako plangintza bat. 	
ESPARRUA	<ul style="list-style-type: none"> ● Irakurketa planean irakurketarekin eta idazketarekin zerikusia duten jarduerak sartu dira. ● Irakurketa planean irakurriaren ulermena sartu da, curriculumeko arlo guztietan. ● Irakurketa planean baliabideen (liburutegiaren...) erabilera kontuan hartu da. ● Irakurketa planak TICak hartzen ditu kontuan. 	
KONTZEPTU MARKOA	<ul style="list-style-type: none"> ● Irakurketa planean zenbait helbururi begira egin beharreko irakurketa jarduerak daude. ● Irakurketa planean zenbait motatako testuak sartu dira, zikloz ziklo hautatuak. ● Irakurketa planean zenbait irakurketa prozesuri dagozkien irakurketa lanak sartu dira. ● Irakurketa planean irakurketarako askotariko estrategiak lantzen dira. ● Irakurketa planean irakasleen akordio metodologikoak bildu dira. 	
DIMENTSIOAK	<ul style="list-style-type: none"> ● Irakurketa planean irakurmenaren ulermena sartu da, eskolako hizkuntza guztietan. ● Irakurketa planean ageri da irakurketa nola lantzen den gainerako arloetan. ● Irakurketa planean irakurtzeko zailtasunak garaiz identifikatzeko neurriak sartu dira. ● Irakurketa planean laguntza eta errefortzu sistema dago. ● Irakurketa planean badira irakurtzera animatzeko jarduerak, ikasgelan egitekoak. ● Irakurketa planean planteatu dira irakurtzera animatzeko jarduerak, ikastetxean egitekoak. ● Irakurketa planean esaten da familiek irakurketan nola inplikatu behar duten. ● Irakurketa planean ezarri dira bestelako erakundeekin (liburutegi publikoarekin...) egin beharreko itunak. 	
IKASLEEN IRAKURMENAREN EBALUAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> ● Irakurketa planean ikasle guztien hasierako ebaluazioa sartu da. ● Irakurketa planean bada ikasleen eskumenaren jarraipena egiteko sistema (erregistro orria). ● Irakurketa planean ziklo bukaerako ebaluazio probak sartu dira. ● Irakurketa planean kanpo ebaluazioaren emaitzak hartu dira kontuan. 	
IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> ● Irakurketa planean irakasleen prestakuntza beharrak zein diren antzemateko tresnak sartu dira. ● Irakurketa planean irakasleen prestakuntzarako jarduera bateratuak planteatu dira. 	
PLANAREN EBALUAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> ● Irakurketa planean irakurketa planaren ebaluazioa sartu da. ● Irakurketa planean mekanismoak sartu dira, ebaluazioaren ondoriozko hobekuntzak txertatzekoak. 	

Hausnarketa hau lehen urratsa da, batetik, irakurketa plan sistematizatua prestatzeko edo, bestetik, aukerarik balego osagai zuzentzaileak sartzeko, ageriko plan bat eskura egonez gero.

4.2 Gidoi orientagarria

.....

Irakurketa plana epe erdira planifikatu nahi bada, atal hauek zehatz daitezke. Nolanahi ere, garrantzitsua ez da formatua, aurretik egindako hausnarketa eta hartutako erabakiak baizik, hori guztia irakasleek partekatutako marko teoriko koherentean oinarritua:

1. Sarrera
2. Helburuak
3. Metodologia
 - 3.1 Irakasleen jarduera komunak
 - 3.2 Irakurketa estrategien irakaskuntza
4. Jarduerak, zikloz ziklo
 - 4.1 Irakurketa, hizkuntza klaseetan
 - 4.2 Irakurketa, irakurketaren asteko orduan
 - 4.3 Irakurketa, gainerako arloetan
 - 4.4 Ikasleei laguntza ematea
 - 4.5 Irakurtzera animatzea
 - 4.6 Ikasleen ebaluazioa
5. Baliabideen erabilera eta horrek antolaketan dituen inplikazioak
 - 5.1 Ikasgelako liburutegia
 - 5.2 Eskolako liburutegia
 - 5.3 Ikastetxeak ez diren baliabideak: familien inplikazioa
 - 5.4 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta irakurketa
6. Irakasleen prestakuntza
7. Planaren ebaluazioa

Hona hemen irakurketa plana prestatzeko gidoia —erabat orientagarria dena—. Eskema bat da eta ikastetxeek erabil dezakete euren irakurketa plana adostu eta idazteko, euren errealitatea aztertu eta hartatik abiatu ondoren. Gidoiko puntuek dokumentu honetako 1. eta 2. puntuetan irakurketaren gainean adierazitakora bidaltzen dute.

1. Sarrera

- Ikastetxeak irakurketari ematen dion garrantzia.
- Testuingurua: eskolako hizkuntzak.
- Atlante proiektutik eratorritako hobekuntza plana.
- Ikastetxeak familiarekin eta bestelako erakundeekin partekaturiko ardura.

.....

2. Helburuak

- Ikasleen irakurmenaren garapena bermatzea.
- Irakurtzeko aztura lantzea baldintzak eskura jartzea.
- Irakaskuntzarako plan egituratu eta sistematizatu izatea irakurketaren arlo guztietan.
- Irakurtzeko zailtasunei aurrea hartzea.
- Irakasleak elkarren artean koordinatzea, irakurketa irakatsi behar dutenean.
- Baliabideak zuzen erabiliko direla bermatzea.
- Familiak irakurketan inplikatzeko.
- Irakasleen prestakuntza bultzatzea, irakurketari dagokion orotan.

3. Metodologia

3.1 IRAKASLEEN JARDUERA KOMUNAK

- Irakurketa arlo guztietan.
- Aldez aurretik egin beharreko lana: aurreirakurketa eta aurreidazketa eta irakurri eta idazten ikasteko metodologia.
- Zenbait ziklotarako egokiak diren testuak aukeratzea.
- Irakurketa prozesu guztiak bilduko dituzten irakurketa jarduerak.
- Ziklo bakoitzerako zehaztutako irakurketa estrategiak sistematikoki lantzea.
- Irakurketa zenbait hizkuntza arlotan integratzeko planteamendua.
- Irakurtzera animatzeko jardueren garapena (ziklo bakoitzerako programatuko dira).

3.2 IRAKURKETA ESTRATEGIEN IRAKASKUNTZA

- Aurreirakurketako eta aurreidazketako trebetasunen irakaskuntza.
- Irakurketa estrategien irakaskuntza.
- Irakurketa estrategien irakaskuntza integratzea: «irakurri aurretik, bitartean eta ondoren» eta/edo proiektuen metodologia.

4. Jarduerak, zikloz ziklo

4.1 IRAKURKETA, HIZKUNTZA KLASEETAN

- Irakurketaren eta idazketaren hasierako irakaskuntza.
- Hiztegia.
- Idatzizko jarduerak.
- Ziklo bakoitzean lehentasunez landuko diren testuak.
- Literatura testuen irakurketa.

4.2 IRAKURKETA, IRAKURKETAREN ASTEKO ORDUAN

- Saioaren ikusmoldea: irakurketaren irakaskuntza sistematikoa eta/edo irakurketa-
ra animatzea.
- Irakurriko diren testuak eta liburuak.
- Irakurketa eta idazketa jarduerak.

4.3 IRAKURKETA, GAINERAKO ARLOETAN

- Arloko hiztegi nagusia.
- Arlo bakoitzean landuko diren testuak.
- Baliabideen erabilera.

4.4 IKASLEEI LAGUNTZA EMATEA

- Irakurtzeko zailtasunak garaiz identifikatzea: prozedura eta arduradunak.
- Laguntzak eta errefortzuak: antolaketarako teknikak eta alderdiak.

4.5 IRAKURTZERA ANIMATZEA

- Irakurtzeko ikusmoldea, giroa: espazioak, denborak eta giroa.
- Ikasgelako jarduna.
- Ikastetxeko jarduna.
- Familiei orientabideak ematea.
- Liburutegi publikoarekin eta bestelako erakundeekin lankidetzan aritzea.

4.6 IKASLEEN EBALUAZIOA

- Hasierako ebaluazioa: zailtasunak antzematea.
- Etengabeko ebaluazioa: ikasle bakoitzaren irakurmen mailaren erregistro orria.
- Bukaerako ebaluazioa: ziklo bukaerako probak eta galde-sorta.
- Kanpo ebaluazioetan lortutako emaitzen azterketa.

5. Baliabideen erabilera eta horrek antolaketan dituen inplikazioak

5.1 IKASGELAKO LIBURUTEGIA

- Baliabidearen zentzua.
- Funtzionamendua: fondoak, mailegua, ikasleen inplikazioa.

5.2 ESKOLAKO LIBURUTEGIA

- Baliabidearen zentzua: liburutegia eskolako dinamikan txertatzea.
- Funtzionamendu arauak: fondoak eskuratzea, irekiera ordutegia...

5.3 IKASTETXEKOAK EZ DIREN KANPOKO BALIABIDEAK

- Familiei eman beharreko orientabideak.
- Koordinazioa liburutegi publikoarekin.
- Koordinazioa bestelako erakundeekin.

5.4 INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK ETA IRAKURKETA

- Irakurketa euskarri digitalean.
- Interneten eta bestelako baliabide informatikoen erabilera.
- Irakasleei laguntza emateko ardura duen pertsona (zailtasun teknikoak sortzen badira).

6. Irakasleen prestakuntza

- Prestakuntza beharrak antzematea.
- Prestakuntza jardueren eskaintza aztertzea.
- Jarduera komunitatean parte hartzea, zikloa edo bakarka.

7. Planaren ebaluazioa

- Irakurketa planaren egokitzapena eta funtzionamendua ebaluatzea.
- Hobekuntza arloen zehaztapena.

.....

4.3 Urteko plangintza

Irakurketa plana urtero zehaztuko da eta hartan ikastetxeak ikasturterako garrantzitsuztat jotzen dituen jarduerak bilduko dira. Berriro eta adibide modura, taulan ageri den formatuan erregistratzeko aukera dago.

200_-0__ IKASTURTEA			HH	LH1	LH2	LH3	Ikastetxea
IRAKURKETAREN GARAPEN SISTEMATIKOA	Eskolako hizkuntzak	GAZT					
		EUSK					
		LI					
	Gainerako arloak	Ingurunearen ezagutza					
		2. Arloa					
		3. Arloa					
		...					
Laguntza							
IRAKURTZEKO AZTURA BULTZATZEA	Ikasgelan						
	Ikastetxean						
	Ikastetxetik kanpo						

8. TAULA

Irakurketaren gaineko jardueren urteko laburpena

Azkenik, ziklo batean edo kurtso jakin batean eginen diren jarduerak behar bezala planifikatuko dira.

ZIKLOA: _____

Helburua	Jarduera	Arduraduna	Baliabideak	Prozedurak	Denboralizazioa	Ebaluazioa

9. TAULA
Jardueren plangintza



ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ALÁS, A. eta beste batzuk (2002): *Las tecnologías de la información y la comunicación en la escuela*. Bartzelona, Graó.
 - ALEGRÍA, J. (2006): «Por un enfoque psicolingüístico del aprendizaje de la lectura y sus dificultades –20 años después–». *Infancia y Aprendizaje*, 29, 93-111.
 - ALONSO, J. (2005): «Claves para la enseñanza de la comprensión lectora», *Revista de Educación*, ale berezia 2005, 63-93.
 - ARIZALETA, L. (2004): «13 ideas para aficionar a la lectura», *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 171, 30-36.
 - CAMACHO ESPINOSA, J.A. (2004): *La biblioteca escolar en España: pasado, presente... y un modelo para el futuro*. Madril, Ediciones de la Torre.
 - CAMPBELL, J.R.; KELLY, D.L.; MULLIS, I.V.S.; MARTIN, M.O. & SAINSBURY, M. (2001): *Framework and specifications for PIRLS assessment 2001*. Chesnut Hill, MA, Boston College.
 - CASSANY, D.; LUNA, M.; SANZ, G. (2000), 5. edizioa: *Enseñar lengua*. Bartzelona, Graó.
 - CERRILLO, P; LARRAÑAGA, E.; YUBERO, S. (2002): *Libros, lectores y mediadores. La formación de los hábitos lectores como procesos de aprendizaje*. Cuenca, Universidad de Castilla-La Mancha.
 - CERRILLO, P; SENÍS, J. (2005): Nuevos tiempos, ¿nuevos lectores? *Ocnos*, 1, 19-34.
 - COLOMER, T.; CAMPS, A. (1996): *Enseñar a leer, enseñar a comprender*. Madril, Celeste/MEC.
 - COLOMER, T. (1999): *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madril, Síntesis Educación.
 - CONSEJO DE EUROPA (2002): *Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza, evaluación*. Madril, HZKMko Idazkaritza Tekniko Nagusia eta ANAYA taldea. [Euskarazko bertsioa: HABE, *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzi Marko Bateratua*]
 - COPE, B.; KALANTZIS, M. (ed.) (2000): *Multiliteracies*. Londres, Routledge.
 - CORONAS, M. (2000): *La biblioteca escolar. Un espacio para leer, escribir y aprender*. Iruña, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
 - DEPARTMENT FOR EDUCATION AND SKILLS (2001): *Education and Skills: Delivering Results. A Strategy to 2006*. Sudbury, DfES.
 - DEPARTMENT FOR EDUCATION AND SKILLS (2003): *Excellence and Enjoyment: a strategy for primary schools*. London, DfES.
 - DEPARTMENT OF EDUCATION, EMPLOYMENT AND TRAINING (2001): *Successful Interventions. Literacy Research Project*. Melbourne, Department of Education, Employment and Training.
 - DE VEGA, M. eta CUETOS, F. (koord.) (1999): *Psicolingüística en español*. Madril, Trotta.
 - ELOSÚA, M.R. (2000): *Procesos de la comprensión, memoria y aprendizaje de textos*. Madril, Sanz y Torres.
 - GÁRATE, M. (1999): *Comprensión lectora y memoria operativa. Aspectos evolutivos e instruccionales*. Bartzelona, Paidós.
-

- GARCÍA MADRUGA, J.A.; MARTÍN CORDERO, J.I.; LUQUE, J.L. y SANTAMARÍA, C. (1995): *Comprensión y adquisición de conocimientos a partir de textos*. Madril, Siglo XXI.
- GARCÍA MADRUGA, J.A., ELOSÚA, M.R., GUTIÉRREZ, F., LUQUE, J.L. y GÁRATE, M. (1999): *Comprensión lectora y memoria operativa. Aspectos evolutivos e instruccionales*. Bartzelona, Paidós.
- GONZÁLEZ, J.; CERVERA, T. y MIRALLES, J.L. (1998): «La adquisición de las relaciones anafóricas en castellano: clases de anáforas y efecto de distancia», *Infancia y aprendizaje*, 82, 21-44.
- GUTIÉRREZ MARTÍN, A. (2003) *Alfabetización digital. Algo más que ratones y teclas*. Bartzelona, Gedisa.
- HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA (2000): *Cómo organizar la biblioteca escolar. Aspectos técnicos y pedagógicos*. Iruña, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
 - (2002): *La lectura comprensiva en el currículo escolar. Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria*. Iruña, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.
 - (2004): *Proyecto Atlante. Plan de mejora de las competencias básicas en Educación Infantil y Primaria*. Iruña, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.
 - (2004): *Proyecto Atlante. Plan de mejora para los centros de Educación Infantil y Primaria. Cursos 2005-2006 y 2006-2007*. Iruña, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.
 - (2004): *Estándares de rendimiento de Educación Primaria. Modelos G y A. Lengua Castellana, Matemáticas, Lengua Vasca*. Iruña, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.
 - (2005): *Los fondos de la biblioteca escolar y los planes de lectura del centro*. Iruña, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.
- HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA (2005): *Lehen Hezkuntzako errendimendu adierazleak. D eredua. Euskara, Matematika, Gaztelania*. Iruña, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.
- HOYT, L. (1999): *Revise, Reflect, Retell Strategies for improving reading comprehension*. Portsmouth, Heinemann.
- ILLESCAS, M.J. (2003): *Estudiar e investigar en la biblioteca escolar. La formación de usuarios*. Iruña, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- IZA, L. (2005): *Las evaluaciones internacionales y la mejora de la competencia lectora de los alumnos*. Iruña, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.
- KINTSCH, W.; Van Dijk, T. (1978): Toward a model of text comprehension and production, *Psychological Review* 85, pp 363-394.
- KINTSCH, W. (1998): *Comprehension: A Paradigm for Cognition*. Cambridge, Cambridge Univesity Press.
- LARROSA, J. (1996): *La experiencia de la lectura*. Bartzelona, Alertes.
- LEÓN, J.A. (2003): *Conocimiento y discurso. Claves para inferir y comprender*. Madril, Pirámide.
- LEÓN, L.; MARTÍN, M. (1998): *Cómo organizar una biblioteca escolar. Infantil, Primaria y Secundaria*. Madril, Escuela Española.

.....

- LEWIS, C.S. (2000): *La experiencia de leer*. Bartzelona, Alba.
- LOKAN, J.; GREENWOOD, L. & CRESSWELL, J. (2001): *How Literate are Australia's Students*. Melbourne, Australian Council for Educational Research Ltd.
- MACHADO, A.M. (2002): *Lectura, escuela y creación literaria*. Madril, Anaya.
- MAJÓ, J.; MARQUÉS, P. (2002): *La revolución educativa en la era Internet*. Bartzelona, Praxis.
- MATA, J. (2004): *Cómo mirar a la luna. Confesiones a una maestra sobre la formación del lector*. Bartzelona, Graó.
- MEC-INECSE (2004): *Resumen de los primeros resultados en España. Evaluación PISA 2003*. Madril: MEC-INECSE.
- MILLA LOZANO, F. (1999): *Actividades creativas para la lecto-escritura (Educación Primaria y ESO)*. Bartzelona, Oikos-Tau.
- MILLÁN, J.A. (2001): *La lectura y la sociedad del conocimiento*. Madril, Espainiako Editore Gremioen Federazioa.
- MONTANERO, M. (2004): «El reto de la comprensión lectora en la Educación Primaria. Cómo enseñar a los alumnos a penetrar en las relaciones entre las ideas del texto», *Bordón* 56 (2), 305-316.
- MORENO, V. (2000): *Lectura, libros y animación. Reflexiones y propuestas*. Iruña, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
 - (2003): *Leer con los cinco sentidos*. Iruña, Pamiela.
 - (2003): *Leer para comprender*. Iruña, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.
 - (2004): *El deseo de leer*. Iruña, Pamiela.
 - (2004): *Lectores competentes*. Madril, Anaya.
- MULLIS, I.V.S.; MARTIN, M.O.; GONZÁLEZ, E.J.; KENNEDY, A.M. (2003): *PIRLS 2001 international report: IEA's study of reading literacy achievement in primary schools in 35 countries*. Chesnut Hill, MA, Boston College.
- MULLIS, I.V.S.; MARTIN, M.O.; GONZÁLEZ, E.J. (2004): *PIRLS International Achievement in the Processes of Reading Comprehension*. Chesnut Hill, MA, Boston College.
- MULLIS, I.V.S.; KENNEDY, A.M.; MARTIN, M.O.; SAINSBURY, M. (2006): *PIRLS 2006. Marcos teóricos y especificaciones de evaluación*. Segunda edición. Madril, IEA-MEC.
- OCDE (2000): *La medida de los conocimientos y destrezas de los alumnos. Un nuevo marco para la evaluación*. Madril, MEC-INECSE.
- OCDE (2002): *Conocimientos y destrezas para la vida. Primeros resultados del Proyecto PISA 2000. Resumen de resultados*. Madril, MEC-INECSE.
- OCDE (2003): *Aprender para el mundo de mañana. Resumen de resultados – PISA 2003*. Madril, MEC-INECSE.
- OCDE (2004): *Marcos teóricos de PISA 2003. Conocimientos y destrezas en Matemáticas, Lectura, Ciencias y Solución de problemas*. Madril, MEC-INECSE.
- OFSTED (2003): *The National Literacy and Numeracy Strategies and the primary curriculum*. London, Ofsted Publications Centre.
- PAJARES, R.; SANZ, A. y RICO, L. (2004): *Aproximación a un modelo de evaluación: el proyecto PISA 2000*. Madril, MEC-INECSE.

- PAJARES, R. (2005): *Resultados en España del estudio PISA 2000. Conocimientos y destrezas de los alumnos de 15 años*. MEC-INECSE (Formato PDF).
- PALINSCAR, A. S.; BROWN, A. L. (1984): Reciprocal teaching of comprehension-fostering and monitoring activities, *Cognition and instruction*, 1, 117-175
- PETIT, M. (1999): *Nuevos acercamientos a los jóvenes y a la lectura*. México D.F., Fondo de Cultura Económica.
- POSTLETHWAITE, N.; ROSS, K. (1992): *Effective schools in reading. Implications for educational planners*. Hamburg, IEA-Grindeldruck GmbH.
- PRESSLEY, M.; AFFLERBACH, P. (1995): *Verbal Protocols of Reading: The Nature of Constructively Responsive Reading*. Hillsdale, NJ, Lawrence Erlbaum Associates.
- SAINSBURY, M. (2004): National and International Assessment of Literacy Skills. A paper presented at the European Summer School. Paris.
- SÁNCHEZ, E. (1993): *Los textos expositivos: estrategias para mejorar su comprensión*. Madril, Santillana.
 - (1998): *Comprensión y redacción de textos*. Bartzelona, Edebé.
- SÁNCHEZ, E. y GARCÍA-RODICIO, H. (2006): «Re-lectura del estudio PISA: qué y cómo se evalúa e interpreta el rendimiento de los alumnos en la lectura», *Revista de Educación*, extraordinario 2006, 195-226.
- SANZ, A. (2003): *Cómo diseñar actividades de comprensión lectora. 3er. Ciclo de Primaria y 1er. Ciclo de la ESO*. Iruña, Departamento de Educación del Gobierno de Navarra.
- SLAVIN, R.E. & CHUNG, A. (2003): *Effective reading programs for English Language Learners. A best-evidence synthesis*. Baltimore, Johns Hopkins University.
- SNOW, C. (2002): *Reading for understanding: Toward an R&A program in reading comprehension*. Santa Mónica, CA, RAND.
- SOLÉ, I. (1992): *Estrategias de lectura*. Bartzelona, Graó.
- SOLÉ, I. (2005): «PISA, la lectura y sus lecturas», *Aula*, 139, 22-27.
- TOLEDANO, F. (2002): *Utilización de las TIC e Internet en tareas de animación a la lectura. Actividades y recursos para Primaria y Secundaria* (<http://www.cpr-cr.org/plande-lectura/recursos/ticlectura.doc>), 2006ko abuztuaren 7an kontsultatua.
- UNDERWOOD, G.; BATT, V. (1996): *Reading and understanding*. Cambridge, MS, Blac-kwell.
- VALLÉS ARÁNDIGA, A. (1989): *Dificultades lectoescritoras en la Enseñanza Básica*. Alcoy, Marfil.
- VEZ, J.M. (ed.) (2002): *Aplicaciones de las nuevas tecnologías en el aprendizaje de la lengua castellana*. Madril, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, Idazkaritza Tekniko Nagusia.

.....









sorta **Urdina**

Blitz Hezkuntza Departamentuan

1. **Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa: hurbiltze saioa**
Hobetzeko gakoak
2. **Eskolako liburutegia nola antolatu**
Alderdi tekniko eta pedagogikoak
3. **Saillapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumeetan**
Unibertsitatekoak ez diren eskoletako liburutegietan fondoak gaiztatu jarraibideak
4. **Eskola liburutegiaren informatizazioa.**
ABIES 2.0 programa

sorta **Berdea**

Blitz Eskolan

1. **MARIANO CORONAS**
Eskolako liburutegia irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
2. **VÍCTOR MORENO**
Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea Hausnarketak eta proposamenak
3. **VILLAR ARELLANO YANGUAS**
Liburutegia eta ikaskuntza autonomoa Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta baliatzeko gida didaktikoa
4. **M^a JESÚS ILLESCAS**
Eskolako liburutegian nola ikasi eta ikertu Erabiltzaileak iprestatzen

sorta **Horia**

Blitz irakurtearen alde

1. **Ulermenezko irakurketa**
eskola curriculumean Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
2. **JESÚS AMADO MOYA**
Hizkera zientifikoa eta ulermenezko irakurketa zientzien arloan
3. **ÁNGEL SANZ MORENO**
Ulermenezko irakurketa eta DBH-KO eskola testuak
4. **VÍCTOR MORENO**
Zertarako irakurri? Ulertzeko
5. **ÁNGEL SANZ MORENO**
Irakurmena lantzeko jarduerak nola prestatu Lehen Hezkuntzako 3. Zikloa eta DBHko 1. Zikloa
6. **Nola prestatu ulermenezko irakurketa plana DBH-ko institutu batean**
Bi adibide praktikoa
7. **NATIVIDAD IRAIZOZ SANZOL**
FERMIN M^a GONZÁLEZ GARCÍA
El mapa conceptual: un instrumento apropiado para comprender textos expositivos
8. **VÍCTOR MORENO**
Ikasteak irakurzaletzen ahotsa, sentimendua eta sormena erabiliz
9. **LUIS IZA DORRONSORO**
Irakurketa plana Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan
10. **GRUPO ARCADIA**
El plan de lectura en los centros de Educación Infantil y Primaria

sorta **Gorria**

Blitz idaztearen alde

1. **PEDRO JIMENO**
Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan

sorta **Laranja**

Blitz ahozko adierazmenaren alde

1. **ANA MARTÍNEZ MONGAY**
Nola prestatu ahozko azalpen bat bigarren hezkuntzako arlo guztietan

BLITZ

Liburutegiko saga

ESKOLAKO LIBURUTEGIKO BILDUMA